argia.eus

argia

2015eko irailaren 13a | LXXVIII. urtea | 2.474 zenbakia | 3,90 euro

EUSKARAREN ERABILERA

NORBANAKOA MOTIBATU ALA MULTZOA ASTINDU?

Tabakalerak ateak zabalduko ditu

Txatxilipurdi. Haur parte-hartzaile eta autonomoak hezten

Net Hurbil. Schäuble, Greziaren borreroa ulertzeko aurrekariak

argia eguna 2015

TXIKITIK ERAGITEN

ARGIA EGUN TXIKIA Arrasaten Irailaren 12an
Doke txapelketa, kale animazioa, pintxo-bazkaria, kontzertuak...

TRANTSIZIOAK ERAKUSKETA
"Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa" erakusketa irailaren 18tik aurrera

BIZIKLETA MARTXA
Debagoienako bidegorrian zehar (ARGIA Eguna bezperan)

BISITA GIDATUA
Aizkorri mendilerroaren bihotzean dagoen Arrikrutz kobetara bisita (ARGIA Eguna bezperan)

AZOKA ALTERNATIBOA
Herri eragileen azoka lekuko produktuekin

IBILALDI KULTURALA
Oñatiko ondare historikoa ezagutzeko ibilbidea

HERRI BAZKARIA
Bertako eta garaiko elikagaiekin hornitutako bazkaria

JOLAS HEZITZAILEAK
Tailerrak haurrentzat eta helduentzat

JOLAS ALDARRIKATZAILEAK
Nortasun agiri arrotzen jaurtiketa

BIZI BARATZEA
Jakoba Errekondo eta komikilariak galderak jorratzen

KALE ANIMAZIOA
Bertsolariak, batukada, herrixka kantuan, ...

KONTZERTUAK
Inguruko euskal musika taldeen emanaldiak

OÑATI - IRAILAK 20

Debagoienako harpidedunen eta eragileen laguntzarekin osaturiko egitaraua



OÑATIKO UDALA

Azaleko argazkia: DANI BLANCO

Azala: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko irailaren 13a, 2.474. zenbakia

ASTEKO GAIA

ELIKADURA DESOREKAK KIROLEAN Podiumak bultzatuta, pisua behartzeko prest. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 4

PERTSONAIA

ANGELA ARBULU BILBAO: «Nebaren gorpua azaldu izan balitz bakean nintzateke, baina horrela ezer ez». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIAK

TXATXILIPURDI AISIALDI ELKARTEA Erabakimena haurrei itzultzen diegunean. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

IRITZIAREN LEIHOA

ALEMANIA ETA ORDOLIBERALISMOA BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18
HAUTAGAITZA BATERATU BATEN ALDE JON ALONSO / 20
GIZAKI GISAKOAK ANUNTXI ARANA / 21
GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19
TXANDAN Karrikak sutan. ITXARO BORDA / 20

ERDIKO KAIERA

ITZULPENGINTZA Kasu kontrako norabideari: literatur esportazioa hizpide. DANELE SARRIUGARTE/ 22
TABAKALERA Nola bihurtu ekosistema oraingoz puzzlea dena. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 26
LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 28
MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29
LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 30
- **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 31

OSASUNA JABIER AGIRRE / 32
DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 33
DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

EUSKARAREN ERABILERA «Motibazio pertsonal sendoan oinarritutako erabilera planak bide motzekoak dira». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 36
TXANPONAREN BESTE ALDEAK Herritarren konpromisoa txantxitan neurtzen da Oñatin. LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA / 39
ESPETXE POLITIKA Jose Luis Elkoro erabat aske, zortzi urteren ondoren. URKO APAOLAZA AVILA / 40
ERREFUXIATUAK Zein paper izan du Mendebaldeak errefuxiatuen herrietan? MARTIN MENDIZABAL GARAI / 42
EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 41
EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 41
NET HURBIL Schäublek greziarren aurretik alemanak ere zukutu zituen. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44
MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

ELIKADURA DESOREKAK KIROLEAN

Podiumak bultzatuta, pisua behartzeko prest

Gimnasia erritmikoa egiten duten emakumeen %42k izan du elikadura desorekarik bere ibilbidean. Murriztu ordez, zabaltzen ari dira halako patologiak, kirolariaren pisuak errendimendua dezente baldintza dezakeen diziplinetan bereziki. Nerabezaroan izandako arazoak azaleratu dizkigute taekwondoan aritzen den emakume batek eta gimnasia erritmikoko ikasle izandako batek.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

TRIATHLON.ORG.AU

C. D. LA VICTORIA

Profil jakin bati erantzuten dio elikadura desorekak dituen kirolariak: emakumea, nerabea eta bi kirol motetan batez ere: iraupen luzeko edo erresistentzia kiroletan batetik (triatloia, txirrindularitza…) eta kategoriak pisuaren arabera banatuta daudenetan bestetik (gimnasia erritmikoa, taekwondoa, boxeoa…).

PISUAREN arabera banatzen dituzte kategoriak taekwondoan, mini euli pisutik hasi eta pisu astuneraino. Kirolariak euren pisua behartzera bultza ditzake horrek. Edurne Garmendiak –ez da hori bere benetako izena– 29 urte ditu; 15 bat zituenean irudiaz eta gorputzaz gehiegi arduratzen hasi zen, eta janariarekin loturiko arazoak sortu zizkion horrek. Bulimia izan zuen nerabezaroan: "Inork ez zidan esaten zein pisutan egon behar nuen, neure buruari ezartzen nion presioa zen. Onenekin lehiatu nahi nuen, eta orduan hasi zen guztia".

Pisuarekiko presioa hainbat esparrutatik etor liteke; norbere barnetik edo ingurutik, taldeko kideengatik esaterako. Ez da erreportaje honetako protagonistaren kasua, baina zenbaitetan entrenatzaileak dira presioa areagotzen dutenak. Halakoak ezagutzen dituela kontatu digu Gemma Sanginés kirol psikologo bilbotarrak; emakumezko kirolari baten esperientziaz aritu zaigu: "Prestatzaileak esaten zion lodiegi zegoela, kontuz ibiltzeko, pisu gehiago ez hartzeko, denboraldia pikutara botako zuela bestela". Kirolariengan eragin kaltegarria izaten du sarri entrenatzaileak, desorekak eragin ditzake, horrelako esaldiekin ez zaie batere laguntzen.

Taekwondoa egiten duen gaztea iritzi berekoa da. "Entrenatzaileek jakingo balute nire moduko arazoak ager litezkeela... Uste dut hortik pasa ez badira ez dutela ulertzen, ez daude halako gaitzetarako prestatuta". Dioenez, batzuetan ez dute arazo gisa ikusten, edo ez dute ikusi nahi. "Kirolaria esandako mailara heltzen den bitartean ez dago arazorik. Egiten ari dena taldearentzat onena dela pentsa dezakete entrenatzaileek. Askotan beraien, instituzioen edo taldearen helburu eta interesak kirolariak dituenaren gainetik jartzen dituzte". Gaur egun, taekwondoko maila altuenetan adibidez, gauzak gaizki egiten direla esan digu. Pisu jakin bat lortzeko kirolariek janariarekin jolasten dute: "Entrenatzaileek badakite hori egiten dutela, baina ez dute galdetzen, ezikusiarena egiten dute eta kirolariak pisua lortzearekin nahikoa dute".

Gimnasia erritmikoan, "epaileek estetika, gorputza eta gorputzaren oreka neurtzen dituzte. Ondorioz, esfortzua egiten da hori lortu ahal izateko", dio Gemma Sanginés kirol psikologoak

Emakume kirolariak dira inguruaren presioa gehien jasaten dutenak. Era berean, haiek pairatzen dituzte bereziki elikadurari loturiko gaixotasunak, gizonetan gero eta kasu gehiago agertzen ari den arren. "Oraindik ere edertasun kanonak emakumeengan nabarmenagoak dira", esan digu Aritz Olagoi kirol psikologo donostiarrak. Bere hitzetan, bulimia edota anorexia moduko nahasteak profil zehatz batekin lotzea zaila den arren, badira nabarmendu daitezkeen ezaugarriak: emakumea, nerabea eta bi kirol motetan batez ere: iraupen luzeko edo erresistentzia kiroletan batetik (triatloia, txirrindularitza…) eta kategoriak pisuaren arabera banatuta daudenetan bestetik (gimnasia erritmikoa, taekwondoa, boxeoa…).

ELIKADURA DESOREKAK KIROLEAN

Zeresana eman zuten iaz Joaquim Rodriguez ziklista kataluniarrak Sky taldeari buruz esandakoak: "Tentuz jokatu behar dute, haien txirrindulariek 'pisua galdu eta hegan egiten dut' diotenean; ume anorexiko belaunaldia sortzen ari dira", zioen Puritok. Ez da ohikoa gizonezko ziklista profesional batek hain gordin hitz egitea.

Olagoiren ustez, iraupen luzeko kiroletan pisu gutxi izateak errendimendua hobetzen lagundu dezakeenez, tentuz jokatu behar da. "Energia asko erre behar duzu, eta halako gatazka bat sortzen da. Kaloria asko behar dituzu, gero entrenamenduetan asko erretzen duzulako, eta harreman hori nolabait hausten bada, edo modu egokian eramaten ez bada, arazoak sortzen dira".

Halako gaixotasunak medio, errendimendua jaitsi egiten da. Arazoa garaiz detektatzen lagun dezakeen zantzuetako bat hori izan litekeela dio psikologo donostiarrak. Sanginesek jarrerari loturiko aldaketak ere ikusten ditu zantzuen artean: "Kirolariarengandik hurbil bazaude jokaeran aldaketa handiak ikusi ditzakezu; tristura, depresioa eta autoestimu falta, besteak beste". Ondorengo esaldiak aurki ditzakegu: "Ez naiz ona, ez nago ondo, ez dut nire burua ongi ikusten, lodia nago"...

Taekwondoa egiten duen gazteari hori gertatu zitzaion: "Kirol arloari dagokionez, ez nengoen egoera onean likido faltagatik arazo batzuk izan nituelako, karranpak-eta. Gainera, pertsonalki ere ez nintzen ongi sentitzen nire buruarekin. Senide asko gara, familia handi bateko kide naiz, eta inoiz pentsatu izan dut bertan egotea ere ez nuela merezi". Ez dio sekula inori kontatu nerabezaroan gertatu zitzaiona, ez etxekoei, ezta taldekideei ere: "Ez dakit nire senideek badakiten, ez dakit nire amak badakien… Gauzak ongi egiten dituzula pentsatzen duzu, uste duzu ongi ezkutatzen duzula gertatzen ari dena. Baina agian jakitun dira, beti iristen baita gauzak hainbeste ardura hartu gabe egiten dituzun momentua, egitea ez egitea baino garrantzitsuago bihurtzen den unea. Ez didate inoiz galdetu ea ondo nagoen, eta ea nola den posible egun dudan pisua izanda, pisu gutxiagoko maila batean lehiatu nahi izatea". Hori kirolariaren erabakia dela erabat onartuta dago taldeetan. "Eurak zein mailatan parte hartu nahi duzun galdetzen dizute, eta zuk zeuk erabakitzen duzu. Horra heltzeko egin behar duzuna zure kontua da".

Bulimiaren kasuan, gaixoek elikaduraren gaineko kontrolik ez dutela argi ikusten da,

Sanginesen arabera: "Gehienetan, haien ondoan bazaude, kontrolik gabe jaten dutela ikusten duzu, normalean oso azkar, eta gero ihes egiten dutela". Sarri, pertsona horiek itxi egiten dira eta bakardadea bilatzen dute. Elkarrizketatu dugun neskak hala ikusi zuen bere burua, baina hortik ateratzea lortu zuen. "Ezin nuen gehiago". Bazekien bere buruari min egiten ziola eta ezin zuela horrela jarraitu. "Kirola egin nahi banuen, benetan ongi egon eta lehiatu nahi banuen, ezin nuen etxean nor ote zegoen, jan ostean komunera noiz joan ahal izango nuen edota zertan ari nintzen ez entzuteko ur txorrota ireki behar nuela pentsatzen egon. Ez da irudi polita zeure burua komuneko lurrean etzanda ikustea". Egun batean hori guztia amaitzea erabaki zuen, "txorakeriak" albo batera uztea. "Zortea izan nuen, konturatu egin nintzen".

> **"Egun, normala da gurasoak batetik, eta entrenatzailea bestetik, seme-alabak lehiatzen ari diren bitartean oihuka ikustea. Pertsonen ordez, txapeldunak nahi ditugu"**
>
> Edurne Garmendia, **taekwondolaria**

Tabua gainditu eta prebentzioan eragin

Janariari loturiko gaixotasunak oraindik tabua dira kirolean. Elkarrizketatutako bi psikologoek eta kirolariak bat egiten dute horretan. Sanginesek dioenez, edozein kirolarik lesio bat izatean ez da ezer gertatzen hori publiko egiteagatik. Aldiz, halako desoreka bat izatea oraindik tabua da, gaizki ikusia dago, gaixotasun psikologikoa delako. "Tabua denez ez da ikusarazten eta tratatu ordez ezkutatu egiten da". Olagoik gaineratu duenez, "nekez ikusten da kirolari bat prentsaurreko batean onartzen, halako arazo baten ondorioz, ez dela lehiatuko denbora tarte batean".

Arazoaz mintzatzea, baina, funtsezkoa da. Edurne Garmendiari "izugarri" lagundu zion bere psikologoarekin hitz egiteak: "Bizitza salbatu dit". Pentsatzen du kirolean dabilen orok laguntza psikologikoa jaso beharko lukeela, norberak bere burua ulertzeko bidea delako hori. Iruditzen zaio pixkanaka zentzu honetan pausoak eman direla, gero eta kirol psikologo gehiago daudela, eta gaiaz hitz egiteko aukera gehiago daudela, oraindik nahikoa ez bada ere.

Bide luzea egin du 15 urte zituenean gertatutakoa atzean uzteko, baina argi du oraindik ez duela pisuarekiko arazoa gainditu. Ez ditu erabaki berdinak hartzen, baina badaude obsesionatzen ari dela pentsatzera daramaten momentuak ere. "Batzuetan pentsatzen aritzen naiz: orain ezin dut jan hemendik denbora batera pisua eman behar dudalako, orain jaten badut bihar baskulako pisua ez da izan beharko litzatekeena izango…". Gaur egun, ordea, gertatzen ari denaz jabetu eta ahal bezain ondoen aldatzeko mekanismoak ditu. Pentsamenduek hor jarraitu arren, helduagoa da, informazio gehiago du.

"Tabua gainditu beharra dago", dio Sanginések: "Ez badugu armairutik ateratzen, ez dugu behar bezala ikertzerik izango; jendeak ez badu onartzen, zaila izango da arazoa gainditzeko urratsak ematea". Prebentzioan jartzen du fokua berak. Sintoma eta ondorioak azaleratu beharko lirateke: "Txikitatik azaldu beharko litzateke zer gertatu daitekeen eta zeintzuk izan daitezkeen janariarekin 'jolastearen' ondorioak".

Prebentzioa eta formazioa dira gaixotasun hauek borrokatzeko giltzak, Aritz Olagoi psikologoaren ustez ere. Formazioak bi osagai hartu behar ditu aintzat: elikadura eta errendimendua, "arriskua bikoitza delako kirolarien kasuan".

15 urte zituenean informazio nahikoa ez zegoela esan digu kirolariak. Baita urteotan esparru horretan urrats handiegirik ikusi ez

IZARGORRI, GIMNASIA ERRITMIKOKO IKASLE OHIA

«Txiki-txikitatik alboan izan ditugu guk geuk osatzen genituen pisu taulak»

TATIANA NAGORNAYA, Eibarko Ipurua klubeko gimnasia erritmikoko entrenatzaile errusiarra, bere ibilbide oparoaz eta aipatu kirolaren egoeraz mintzatu zitzaigun, Miel Anjel Elustondok ARGIAren 2.462. zenbakian egindako elkarrizketan. Hark esandakoei erantzun zien interneten irakurle batek, Izargorri ezizena erabiliz. Hona Izargorrik utzitako pasarte batzuk:

«Urteak egin nituen gimnasia erritmikoan (...) Batetik, eredu sexista hutsa transmititzen du; nesken kirola! Diziplina handia transmititzen omen du, zein ereduren izenean? Argaltasunaren izenean? Dena albo batera uztearen izenean? Neska txikiak askatasuna behar du. Seguru sentitu behar da. Eta horretarako, maitasuna besterik ez du behar, eta nik ez nuen hori aurkitu.

> **"Neska txikiak hori behar al du? 200 gramo argaldu ditzala agintzeko zer behar dago? Noren mesedetan dira exijentzia horiek?"**

Onena izan behar duzu, argalena izan behar zara, eta txiki-txikitatik alboan izan ditugu guk geuk osatzen genituen pisu taulak. Neska txikiak hori behar al du? 200 gramo argaldu ditzala agintzeko zer behar dago? Noren mesedetan dira exijentzia horiek?

'Gimnasia erritmikoa utzi duena loditu egin da' askotan entzun nuen esaldia izan zen. Horrek, segurtasun falta eta kanon estetiko baten barneraketa dakar neskarengan (baita gimnasia erritmikoa uzteko beldurra ere; ni ere loditu egingo naiz...)

Nire amarentzat, bere alabak asko sufritu du gimnasia utzi eta gero. Argaltasunak ikaragarri kezkatu du alaba eta arazo latzak izan ditu elikadura dela-eta (...) Seme-alaba aske eta burujabeak izan nahi ditudan heinean, ez ditut nire seme alabak bide eta eredu horretara bideratuko. Izan ziur».

duela ere. "Gizarteratu egin beharko litzateke. Egia da, nik, adibidez, oraindik lotsa sentitzen dudala hau onartzean, baina beste batzuei gauza bera ez gertatzeko bidea da hau". Heziketari berebiziko garrantzia ematen dio eta, horretarako, gurasoekin ere lan egin beharko litzateke: "Gurasoak dira etxean janaria prestatzen dutenak, mahaian daudenak, eta eurak konturatu behar dira gertatzen denaz".

Pertsonen ordez, txapeldunak

Gaixotasun hauek kirolean izan duten bilakaeraz galdetuta, guztiek ideia berarekin egiten dute bat: gero eta gazteago hasten dira halako arazoekin, eta lehen bereziki emakumeetara mugatzen bazen ere, orain gizonetara ere zabaldu da, iraupen luzeko kiroletan batez ere. Datu bat ematearren, gimnasia erritmikoa egiten duten emakumeen %42k izan du halako gaixotasunen bat bere ibilbidean. Ia erdiak, alegia.

Adinari dagokionez ere, esan bezala, gero eta gazteago hasten dira halako desorekekin. Azken urteotan, lehiaketetan parte hartu ahal izateko adina jaisteak eragina du, ezinbestean. "Goi mailan ez egon arren, pisuaren kontua lehiaketarekin loturik dagoenez, 10 urterekin txapelketetan parte hartzen hasteak eragiten du", nabarmendu du Sanginések. "Epaileek estetika, gorputza eta gorputzaren oreka neurtzen dituzte. Puntuaketan edo ondorioetan zenbaki bat du, ondorioz aldagai garrantzitsu bihurtzen da, eta esfortzu bat egiten da hori lortu ahal izateko".

Beste kirolari batzuekin hitz egindakoagatik arazoa handitzen ari dela uste du Garmendiak. Presioa gero eta handiagoa dela pentsatzen du, lehen norberak bere buruari jarritakoa zela, eta azken urteotan inguruaren presioa hazten ari dela. "Nire gurasoek gertatzen zena momentuan jakin izan balute, errieta egingo lidakete. Egun gurasoengandik ere badator presioa". Seme-alabak munduko txapeldun ikusteko esperantzaz gurasoak beste alde batera begiratzeko prest daudela uste du berak. Azken urteotan arazoari garrantzia kendu zaiolakoan dago, eta egoerak berdin jarraituko duela baldin eta prestutasunik ez badago lehiaketen eraginez halako gaixotasunak zabaldu direla onartu eta zerbait egiteko. "Egun, normala da gurasoak batetik, eta entrenatzailea bestetik, seme-alabak lehiatzen ari diren bitartean oihuka ikustea". Gurasoek seme-alaben lehiaketak konpetizio moduan ikusten dituztela dio, haurrak jolasean eta ongi pasatzen ari direla pentsatu ordez. "Pertsonen ordez, txapeldunak nahi ditugu". ■

ANGELA ARBULU BILBAO

«Nebaren gorpua azaldu izan balitz bakean nintzateke, baina horrela ezer ez»

Gerrara joan orduko hil zuten Felix Arbulu Bilbao, 1936ko irailean. Etxean utzi zuen familia. Tartean, Angela, arreba txikia. Haren aipamenak ditu laurogei urte igaro direnean ere. Aipamenak bai, Felixen gorpurik ez bizi guztian.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Angela Arbulu Bilbao…

Horixe dut izena, bai. Laurogeita hemezortzi urte ditut, eta beraz, zeuk esan noiz jaioa naizen, nik kontuak aspaldi galduak ditut eta… Santurtzin jaio nintzen, Balparda auzoan, baserrian. Baserria zen ni jaio nintzenean, behinik behin. Bost neba-arreba izan ginen etxean, hiru neska eta bi mutil, eta gurasoak eta amama, gure aitaren ama: Florentina Eguzkitza. Amama honek euskaraz zekien. Edo gurago baduzu, ez zekien gaztelaniaz, euskaraz baino! Arrazolakoa zen, Elorrio ondokoa, Anbotopekoa, eta han ez zen euskara baino! Santurtzira etorri zenean ikasi zuen apur bat gaztelaniaz. Gure amaren ama ere euskalduna zen, Josefa Landaluze, Gatikakoa. Ez batak ez besteak zekiten gaztelaniaz, eta euskaraz egiten zioten berba elkarri. Gure ama zenak ere bazekien euskaraz, aitak ez ordea, eta guk ere ez genuen ikasi.

ANGELA ARBULU BILBAO

Ez zenuten euskaraz ikasi…

Ez. Eskolara joan ginenean galarazita zeukaten. Jakina, bada! Han alferrik zen euskaraz jakitea!. Eskola normal bat zen gurea, ez ikastetxe eta ez kolegio. Ondo tratatzen gintuzten, beste barik. Maistra ere estu samarra zen, zorrotza, eta zuzen ibili beste erremediorik ez zegoen harekin. Berrogeiren bat ume ginen eskola hartan, bi departamendutan banatuta: gela batean, mutilak; bestean, neskak. Aparte. Batean, *don* Julian zen maisua, Julian Irigoien, Nafarroa partekoa. Bestean, gurean, *doña* Carmen Casan genuen, Asturias aldekoa. Hamalau urte arte izaten ginen eskolan. Gero, behiak zaintzen hasten ginen.

Olgeta ere izango zen.

Umeak olgetan baino ez du egin gura. Beti olgetan gura. Han ibiltzen ginen kaniketan, diaboloan… Badakizu, gora bota, eta behera datorrenean jaso: bota eta jaso, bota eta jaso, diaboloa. Baina dena ez zen olgeta. Baserrian behiak geneuzkan, eta haiek ere zaindu beharra zegoen. Ni etxeko txikiena izan, ordea, eta ez nuen ezer ere egin beharrik izaten. Beharrean ez, behintzat! Gurasoek bai, biek egiten zuten behar gure etxeko baserrian, behiak zaintzen eta baratzean eta egin behar zen guztietan.

Eta zuk?

Baserrian beharrik egin beharrik ez nuen izan nik hamalau urte arte. Eskola amaitu nuen arte. Ordu arte, errotara joan baino ez nuen egiten nik. Astoa hartuta joaten nintzen errotara, eta nirekin etortzen zen auzoko neskamutil koadrila. Garia ehotzera errotara joan, etxera ekarri, morokila egin eta taloa jaten genuen. Gure amak irin biak nahastuta egiten zuen taloa, gariarena eta artoarena. Suaren gainean, txapan erreta jaten genuen talo gozoa.

Hamalau urte betetzean amaitzen zen eskola, eta hasten zen mundua.

Baliteke. Nik, hasteko, behiak zaindu behar izan nituen, eta josten ere ikasi nuen. Ahizpa zaharrenak, Trinik, jostun ikasi zuen, eta neska gazteak hartzen zituen etxean, haiei erakusteko. Eta nik ere berton ikasi nuen. Trini, Felix, Bitoria eta laurok ginen. Bosgarrena gaixorik hil zen, zortzi urte zituela.

Felix ere hil zen, gazterik…

Bai. Felix gerrara joan zen eta ez zen itzuli. Mitinetara eta leku guztietara eroaten ninduen Felixek. Ni txikia nintzen, eta ezin nintzen batera eta bestera bakarrik joan. Baina aitak Felix joaten zen toki guztietara joaten uzten zidan. Eta halaxe ibili nintzen Felixekin. Oso abertzalea zen nire neba. Lagun bat ere banuen nik, Tere, eta hura osabarekin joaten zen mitin eta jaietara. Neska biok txikiak ginen, oso txikiak, baina mitinetara eroaten gintuzten, eta bertora gu. Eta mitinean txistua jotzen zutenean, dantza egiten genuen guk, kalean berton txistularien atzetik joan eta ikasita. Orduan ere abertzalerik bazegoen Santurtzin. Mitinetan politika zen, noski. Agirre lehendakaria ere izan zen hemen. Jose Antonio Agirre. Zein den badakizu?

Baldin baita ere!

Haren hiletan ere izan ginen. Beste mitinlari bat bazen, Santurtzi bertokoa. Eta [Telesforo] Monzon, eta beste asko. Mitin guztietara joaten ginen.

Felix gerrara joan eta ez zela itzuli esan diguzu.

Bai. Santurtzin batailoi bat osatu zen, eta lehena izan zen joaten. Baina ez zen itzuli. Goiz batez, haren lagunak etorri zitzaizkigun baserrira. Felixik ez! Abelino Basagoiti, Lorenzo, Tomas… bost edo sei lagun ziren, eta Felix baino ez zen falta han. Felix ez beste guztiak itzuli ziren gerratik. Haiexek esan ziguten Felix hila zela. Elgoibarren. Beti jakin izan dugu han hil zela, Elgoibarko San Migelen, beste barik; toki zehatzik ez. Inoiz ez genuen Santurtzira ekarri ahal izan. Bitartean, gurasoak txarto. Amak oso txarto pasatu zuen tragoa. Aitak, apur bat hobeto eutsi zion. Nik ere txarto, harreman estua neukan eta nire nebarekin. Toki guztietara eroaten ninduen.

Oraindik orain zer edo zer gehiago jakin duzue.

Elgoibarko San Migelen hil zutela esaten ziguten, han desagertu zela, baina besterik ez dugu jakin duela gutxi arte. Felixen batailoia nire nebaren mezatara etorri zen, gorputza falta zela. Bi ziren hildakoak, bata Felix, Santurtzikoa, eta beste bat Portugaletekoa. Akordatzen naiz Felixen batailoiak Garaizabal eduki zuela izena, Santurtzin Garaizabal ize-

NORTASUN AGIRIA

Angela Arbulu Bilbao. (Santurtzi, 1917) Memoriaren zaindari da. Kasu honetan, Felix nebaren heriotzaren berriemaile zuzena. Haurra zelarik, neba zaharragoaren eskuari helduta ibili zen Santurtzin batera eta bestera. Adin handikoa delarik, gogoari josita darabil Felix gudariaren memoria. Ahaleginean eginahalak egin badituzte ere, ezin nebaren gorpurik berreskuratu. Horixe zama, bizi guztiko orratza bihotzean barneraino sartua. Eta behin eta berriz eta askotan, andrezkoa oroimenaren gordailu.

neko mutil gazte bat hil zutelako. Dantzan ari ziren, neska eta mutil, eta zer izan zen ez badakit ere, sastakadaren bat jaso zuen Garaizabal gazte hark, eta berton hil zen. Eta haren izena jarri zioten Santurtziko batailoi hari. ANVkoa zen mutila.

Gerra etorri zen

"Orduan ez zen orain bezala, dena erradio eta telebista. Orduan herrian jakiten zenituen gauza guztiak, eta gerra izan zenean herria aztoratuta egon zen, aztoratuta. Erreboluzioa zela esaten zuten: faxistak, monarkikoak, errepublikarrak… denak aztoratuta. Nahaste-borraste galanta Santurtzin egun haietan! Eta gerra etorri zen".

Arbulu konpainia

"Gerra etorri zen garaian, Santurtziko Balparda auzoan hogeiren bat lagun biziko ziren. Haietako bat karlistekin joan zen; gainerako guztiek gudariekin bat egin zuten: hiruzpalau, gure etxekoak ziren, Arbulu; beste bi, behinik behin, Basagoiti ziren. Gure neba Felix hil eta gero, gudari konpainia bati, Gipuzkoakoa, nonbait, Arbulu izena jarri ziotela jakin dut. Nebaren oroimenez".

Felix Elgoibarko San Migelen hil zutela esan diguzu, baina oraintsu arte ez duzue jakin non.

Orain zer edo zer gehiago jakin izan dugu, baina inoiz ez dute haren hezurrik Santurtzira ekarri. Felix ez da azaldu. Nik gustura hartuko nuke Felix Santurtzira ekartzea… [Angelaren seme Joseba Felixek hartu du hitza ondoren, zehaztasunak emanez] Elgoibarko Ziardamendin bada Agote deiturako familia bat, eta hango semeak esanda jakin dugu dakigun apurra. Agote honen aitak berari umetan kontatu zionez, gerra garai hartan herriko alkateak agindu omen zien inguruko baserritarrei han ageri ziren gorpu guztiak lurperatzeko, kiratsa zerielako. Mendi paraje bati ere Kalaberamendi deitzen omen zioten, kaskezurrez beteta zegoelako. Bada, Agote honen aitak hamar lagun non lurperatu zituzten jakin zuen. Haiek lurperatzen lagundu zuelako, inondik ere.

Hamar lagun…

Zulo batean, bat. Bestean, lau. Hirugarrenean, bost. [Jose Maria] Otsoa de Txintxertu gudaria berton izan zen borrokan, zauritu egin zuten eta bazekien gutxi gorabehera non erori ziren gudariak. Zer egin zuen? Halako batean Ziardamendira joan, bederatzi gudariren gorpuak aurkitu, atera eta Derioko hile-

rrira eroan. Gauza alegala, nahi baduzu, baina egin zuten. Otsoa de Txintxertuk Agote zaharrarekin hitz egin zuen, eta hark esan zion gorpu gehiago ere bazirela han lurperatuta. Hurrena, Aranzadi elkartea lan honi buru-belarri lotu zitzaionean, delako Agote harekin hitz egin zuen Pako Etxeberriak, eta Agote zaharra hil zenean, haren semearekin. Honek ere bazekien non zeuden hiru hilobiak, eta bertara joan ginen.

Han azaldu zen zuen etxeko Felix?

Esango dizut. Batean, miliziano batena omen zen hilobian, kartutxoa besterik ez zen azaldu. Bestean, bost lagun lurperatuta omen zeuden zuloan, ez zen ezer ageri. Pako Etxeberriaren arabera, hainbat aukera zeuden: lekua pinudia zen, eta bazitekeen pinuak gorpuak jan izatea; pinudi bat, esaterako, aterata zegoen, eta birlandatua… Bizpahiru induskeeta egin genituen, eta ezer ez. Baliteke bost gorpu haiek hamar metro honantzago edo harantzago egotea, edo hamar metro barrurago, nork daki!

Eta hirugarren hilobian saiatu zinetenean?

Bada, Etxeberriak ez zuen batere esperantzarik. "Zer eginik ez dago!", zioen. Gurekin zen Agoteren semea, eta lurra zulatzen hasi aurretik esan nion: "Bitorio, zu lasai. Oso pozik gaude orain arte egin dugun lanarekin. Zuen aitak eta zuk zeuk egindako lanagatik heldu gara honaino, eta gorpu hauek azaldu, ez azaldu, urte guztiotan ondo baino hobeto zaindu dituzue, eta horixe da inportantea". Eta zulatzen hasi eta halako pinu adar bat, iduriz. Eta Etxeberriak, puntuan: "Femurra!". "Zer ari zara, femurra?", guk, sinesgaitz, baina Etxeberriak, berriz: "Bai, bai, femurra!". Eta zulatzen segi eta lau gorpu! Lau haietatik biren DNA baino ez da lortu ahal izan. Gure ama Angelari DNA lagina hartu zioten, baina ez du inorekin bat egiten. Hortaz, Felixen gorpua izan liteke ezagutu ezin izan den haietako batena, edo bigarren hilobian zeuden lau haietako batena. Edo, areago, Otsoa de Txintxertuk atera zituen bederatzi haietako batena! DNA frogak egin behar, eta zain gaituzu. PNVk Madrilen duen parlamentari Aitor Estebanekin mintzatu ginen, eta baietz, frogak egingo direla agindu zigun. Zain.

Zure neba identifikatu zain, Angela.

Bai. Horretan gaude. Guk familiaren panteoia daukagu Santurtzin, Arbulu Bilbao, eta gure ilusioa da Felix gure panteoira ekartzea. Baina ekartzea lortzen ez badugu, ez dio ardura, urte asko pasatu dira eta. Guk orduan pasatu genuen txarto, Felix gudariekin borrokan gerran hil zela esan zigutenean, haren gorpua jaso ez genuenean. Orain urte asko pasatu dira.

Historia luzea da. 1936an hasi, eta 2015ean horretaz ari gara oraindik.

Bizi osoko historia. Zama bat ere izan da, agertuko den ez den, barrundatu guran beti. Haren gorpua azaldu izan balitz, etxeko panteoian lurperatu izan bagenu, kontua amaituta egongo zen, bakean nintzateke. Baina horrela, ezer ez. ■



AZKEN HITZA

1936, irailak 25

"Gerrara joan baino lehen desfilatzen ikusi nuen neba bere batailoiarekin Areeta-Getxon. Eusko Jaurlaritzak berton zuen egoitza, eta haren aurrean paseatu ziren gudariak, dotore, harro, pozik. Gero, 1936ko irailaren 25eko goizean hil zuten nire neba. Felix Arbulu Bilbao zen".

Frontean hil zen

"Lehenengo gauean hil zituzten. Joan ziren kantuan, eta Ziardamendin, faxisten segada! Metrailatu egin zituzten: gudari batzuk hil zituzten, beste batzuk zauritu, eta beste batzuek atzera egin ahal izan zuten. Goizeko ordu txikiak omen ziren, goizeko hirurak, metrailatu zituztenean. Mendian behera jaitsi ziren, errekontua egitera, eta zenbait lagun falta, tartean Felix. Egunetara, gudari haietako batzuk baimenarekin etorri ziren Santurtzira. Gure baserrira joan eta amari esan zioten: 'Gure sentimendua, Justa, Felix frontean hil zen'".

TXATXILIPURDI AISIALDI ELKARTEA

Erabakimena haurrei itzultzen diegunean

Zer gertatzen da aisialdiaren eta herriaren antolakuntzan haurrei parte hartzeko eta erabakitzeko aukera ematen zaienean? Lau pareta arteko jarduna apurtu eta kaleak jolaserako berreskuratzen direnean? Heziketan herritar guztiak inplikatzen direnean? Norabide horretan dihardu Arrasateko Txatxilipurdi haur eta gazteen aisialdi elkarteak. Taldeko Amaia Etxabe Goikoetxea, Aizpea Otxandiano Madinabeitia eta Mireia Baz Mangana hezitzaileekin bildu gara.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

BIZITZA GUTXI duen auzo batean jarri zuen martxan esperientzia Txatxilipurdik: bertako ludotekako haurrei galdetu zieten ea nolakoa nahiko luketen izatea aurreko plaza. Haur bakoitzak marrazki bidez irudikatu zuen, gero kideen marrazkiak bozkatu zituzten gometxen bidez, eta tirolina eta labirintoa zituen irudia izan zen bozkatuena. Udalarekin eta auzokideekin hitz egin, eta labirintoa eraikitzeari ekin zioten haur, guraso eta auzokideek. "Hilabetez izan genuen labirintoa plazan, festa egun bat ere antolatu genuen eta egun horretarako tirolina muntatu genuen. Ikusgarria izan zen, zelako gauzak lor daitezkeen umeen ideietatik sortuak eta umeekin batera eraikiak. Prozesu guztian haurrak izan ziren protagonista (erabakietan, materialen aukeraketan, eraikuntzan…) eta gure arteko harremanak garatzeko modua oso aberasgarria izan zen", kontatu digu Aizpea Otxandianok.

Adibideak ondo laburbiltzen du Txatxilipurdiren aisialdi eredua: "Aisialdi eredu askea lantzen saiatzen gara –dio Amaia Etxabek–, haur eta gazteen autonomia garatzen, euren beharretatik abiatuta eta euren aisialdia autoantolatzeko tresnak eskainiz. Aisialdi parekidea izatea nahi dugu, horizontala (hierarkiarik gabea), inklusiboa, komunitate baten baitan eta komunitate batekin harremanetan, ingurune naturala eta kulturala zaintzen duena, eta euskaraz".

> **"Ludoteketan ez da eguneko egitaraua aurretik zehazten. Ikusgarria da zelako gauzak lor daitezkeen umeen ideietatik sortuak eta umeekin batera eraikiak"**
>
> Aizpea Otxandiano

Haurren benetako parte-hartzea, asanblada bidez

Haurren benetako parte-hartzea bermatzea da Txatxilipurdiren oinarri nagusietakoa. Ludoteketan, adibidez, ez da eguneko egitaraua zehazten, haurrei galdetzen zaie zer egin nahi duten denbora tarte horretan eta asanbladatan bilduta denon artean erabakitzen dute, haur, gazte eta heldu (3-12 urte arteko haurrak daude hezitzaileekin), adin nahasketak ematen duen aberastasuna baliatuz. "Hasieran, ohitura faltagatik, kosta egiten zitzaien haurrei, helduak zer esango zain zeuden –azaldu du Otxandianok–, baina polikipoliki, dinamika bereganatu ahala, ekintzak proposatzen hasi ziren eta interesgarria da ez dituztela bakarrik euren gustuko gauzak proposatzen, inguruko kideak ere hartzen dituzte kontuan. Proposamen zentzuzkoak dira, aurrera eramateko modukoak, eta oztopoen aurrean ez dira gure moduan frustratzen; trabaren bat dagoela? Bada, beste era batera egingo dugu". Haurrak bakarrik ez, helduok ere ez gaude ohituta, gaineratu du Etxabek, "eta gure rola berrikusi behar izan dugu. Haurrari hitza eman, entzun eta elkarlanean murgiltzeko prest egon behar duzu. Benetako parte-hartzean maila berean gaudelako denok, eta elkarri entzuteko eta elkarrekin aritzeko prest egon behar dugu".

Parte-hartze prozesuon emaitza dira, besteak beste, Otxandioko ludotekan eraiki duten etxetxoa, Arrasateko eszenatokia, beste ludoteka batean lantzen ari diren baratzea edota herriko plaza eraldatzeko hainbat lekutan sortu diren ekimenak. Haurraren kulturaz mintzatu zaigu Mireia Baz: "Umeak, jaiotzen den unetik du mundua ikusteko eta bizitzeko modu bat. Helduok gaitasun hori aitortu

Helduok bideratu eta kontrolatu gabeko jolasen alde egiten dute Txatxilipurdin. “Umea kalean jolasten badabil, kaleak eta naturak eskaintzen dizkion baliabideekin, ume sortzailea izango da”.

behar diogu, mundua ikusteko bere erari oztopoak jarri ordez”.

Beldurraren gizartetik kalea birkonkistatzera

Eremu itxi batetik bestera autoz eramaten ditugu haurrak, beti helduen zaintzapean, errepidez josi ditugu herriak eta debekuz bete plazak (baloiarekin jolasteko, patinetan aritzeko…). Beldurraren gizartean bizi garela diote elkarrizketatuek, helduok ditugun beldurrak transmititzen dizkiegula haurrei, eta gure beldurrek euren garapena mugatzen dutela. “Segregatuta bizi gara, kolektibo bakoitza bere eremuan, eta gainera espazio itxietan; sentsazioa dugu hortik kanpora dagoena arriskutsua dela –uste du Etxabek–. Mezu hori, beldur hori zabaltzen doa, handitzen, baina herria gurea ere bada, haurrena, gazteena, emakumeena, etorri berriena… Denona. Goazen herria birkonkistatzera eta denona egitera. Batzuek atzerapausoak eman beharko dituzte beste batzuen mesedetan: adibidez, autoei emandako espazioa zerbait mugatu beharko dugu plaza batzuk bizikletentzat uzteko”. “Aitonak kontatzen dit nola txikitan bakarrik irteten zen etxetik, auzoan jostatzen zen beste umeekin… baina gaur egun ez dago umerik kaleetan! Horri buelta eman eta denok seguru sentiaraziko gaituen herri askea sortu behar dugu”, aldarrikatu du Otxandianok.

> **“Herria gurea ere bada, haurrena, gazteena, emakumeena, etorri berriena... Goazen herria denona egitera. Autoei emandako espazioa mugatuz, adibidez”**
>
> Amaia Etxabe

Horretan hasiak dira dagoeneko: ludotekako paretak gainditu eta kalera irten dira Txatxilipurdiko aisialdi taldeak, jolaserako eta euskararako espazioak berreskuratu asmoz. “Eta ludoteka ireki dugunean konturatu gara istripu gehiago bizi ditugula barruan gaudenean, kanpoan gaudenean baino”, adierazi du Bazek. Gainera, praktikak erakutsi die eremu itxietan ematen diren harremanak askoz gatazkatsuagoak direla: “Ludoteka itxian, egun horretako umorearen arabera, istilurako prest egon gaitezke, baina pareko plazara atera eta denok askoz lasaiago gaude”, dio Etxabek.

Jolasa, garapenaren funtsa

Haurrek jolastu ahal izatea nazioartean aitortua dagoen eskubidea izateaz gain, umeen garapenerako ezinbesteko tresna dela azpimarratu dute hiru elkarrizketatuek: jolasaren bitartez lantzen direlako autonomia, gatazkak konpontzeko gakoak, norberaren mugak non dauden, norbere buruarekiko konfiantza… Horregatik, eguneko zereginak egin ondoren denbora librea izanez gero egiten den jarduera izan ordez, jolaserako tartea hartzea aldarrikatzen dute. Eta jolastea da zikintzea, igotzea eta jaistea, salto egitea… “Horrek denak garapen emozional eta psikomotorean sekulako eragina dauka; horregatik da jolasa gizakion behar biologiko bat”, nabarmendu du Bazek.

Jolasa bera, ordea, kontrolatu nahi izaten dugu maiz helduok, eta jolasgune estandarrak, jostailu jakinak eta jolas bideratuak nagusi dira gure inguruan. “Umeari dena eginda ematen badiogu, ume horrek ez du sormena landuko. Zer esanik ez, telebista aurrean jarrita baldin badugu. Aldiz, umea kalean jolasten badabil, kaleak eta naturak

57 langile, milaka haur, hamaika egitasmo

Arrasate Euskaldundu Dezagun 1983an sortu zen eta haurrentzako ekintzak antolatzera zuzendu zuten lantaldeetako bat. Hamarkada bat geroago, 1994an, lantalde gisa jaiotakoa elkarte independente bihurtu zen: Txatxilipurdi. Egun, urte osoan 57 langile dira eta udaran, udalekuak medio, ehundik gora. 1.000 haur baino gehiago izan dituzte udan; urtean zehar zenbat umerekin aritzen diren jakitea ez da erraza: udalekuak, gaztelekuak, ludotekak eta gazte txokoak kudeatzen dituzte, tailerrak ematen, formazioa eskaintzen eta ikuskizunak antolatzen (txotxongiloak, karaokea, ipuin kontaketak…). Guraso.com agerkari digitalaz ere arduratzen dira, Goienarekin batera.

Arrasaten dute erdigunea, baina bailarara zabaldu dute jarduna (Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati, Otxandio, Zaldibar) eta egitasmo ugari dituzte martxan (Berramesten, Txikilandia, Ludoteka Ibiltaria, Arrasatek Hezi, Freskura…), balio hezitzaileetan oinarritutako aisialdi euskalduna helburu. "Euskara sarri eremu jakin eta itxiekin lotzen dugu eta gure erronketako bat da euskara kalera modu ez formalean ateratzea, ikusaraztea euskaraz ondo pasa daitekeela".

Ezker-eskuin: Amaia Etxabe, Mireia Baz eta Aizpea Otxandiano.

eskaintzen dizkion baliabideekin (jolasa ez dagoelako derrigor jostailura lotuta), ume sortzailea izango da", dio Otxandianok.

Haurrek beraiek antolatu eta erabaki ditzatela jolasak, pertsona askeak, autonomoak eta parte-hartzaileak izan daitezen. Helburu horretan, hezitzaileak antolatzaile izatetik bidelagun izatera pasa direla diote elkarrizketatuek. Harremanak egiteko, lantzeko eta garatzeko moduan eta enpatian omen dago gakoa. "Hasieran ni neu nintzen oztopoa –onartu digu Bazek–. Umeak kalera atera? Zer esango dute gurasoek?... Baina gero, aldaketak egiten zoazen heinean, etengabe ikasten eta konfiantza hartzen zoaz. Batzuetan etxera bueltatu eta sentsazioa da gaur ez dudala ezer egin, ohituta gaudelako emaitza eta lorpen fisikoetara, baina egitasmoetan politena da nolako harremanak ematen diren, emozioak zelan lantzen diren, adin tarte ugaritako eragileen sareak nola osatzen diren… Elkar elikatzen eta ikasten dugu".

> **"Jolasak sekulako eragina dauka garapen emozional eta psikomotorean; horregatik da jolasa gizakion behar biologiko bat"**
>
> Mireia Baz

Herri Hezitzaileen Sarea, denon herria eraikitzen

Bidean, antzerako gogoetak dituzten Euskal Herriko beste eragile ugari aurkitu ditu Txatxilipurdik. 2012an hasi ziren biltzen eta 2015eko urtarrilean aurkeztu dute euren burua: Oinherri Herri Hezitzaileen Sarea. Hamahiru eragile daude atzean (Txatxilipurdi, Irrien Lagunak, Lizarra eta Iruñeko haurreskolak, Hik Hasi, Oarsoaldeko Garapen Agentzia, Topagunea, Sorguneak, Ikastolen Elkartea, Tabakalera,

Argia Egunean laguntzaile

Hilaren 20an Oñatin ospatuko dugun Argia Egunean, bailarako eragileak izango ditugu laguntzaile eta tartean izango da Txatxilipurdi. Haur eta helduentzako ginkana prestatu dute egun horretarako, balio hezitzaileak eta dibertsioa oinarri.

Amarauna, Kukumixo, Urtxintxa Bizkaia, Ttakun) eta hamabi herri batu zaizkie oraingoz: Soraluze, Agurain, Arrasate, Egiako auzoa, Otxandio, Baigorri, Baztango herriak eta Dima. "Haur, nerabe, heldu… Herritar guztiok aitortzen gaituen herria da herri hezitzailea, herritar guztiok hezitzaile garelako, denok gara balore transmisore, eta horretaz jakitun elkarrekin eraikitzen dugu herria, guztion ongizatea helmuga", deskribatu du Etxabek. Francesco Tonucci pedagogoaren ideiak dira abiapuntua (euskaraz eskuratu daiteke Tonucciren *Haurren hiria* liburua): finean, haurren beharretan oinarritzen den eta horren arabera antolatzen den herria, herritar guztien beharrak asebeteko dituen herria izango da.

Oraindik hastapenetan daude, baina badira esperientzia aipagarriak, "euren txikitasunean oso handiak": OarsoaldeanOarsoIrriak egiten ari den lana nabarmendu dute, Sopelako jaietan haurrek euren gunea eraikitzeko buruturiko ekimena, Lakuntzan ume eta helduek elkarlanean eraldatutako jolas-parkea… Teoria eta praktika uztartzen dituzten bost liburuxka ere kaleratu ditu Oinherrik: *Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen*; *Nola sustatu haurren parte-hartzea ikuspegi feministatik*; *Nola egin udaleku parte-hartzailea* eta *Parkeak bizitzeko modu berriak*.

Otxandianoren hitzetan, "duela urte batzuk, umeak heztea gurasoen, eskolaren, auzotarren… gauza zen, baina gaur egun, norbera baino ez da bere seme-alaben hezitzailea, eta ondokoak ez du zer esanik umeak zerbait egiten duenean. Heziketa, ordea, denon ardura da, uneoro ematen da, eta herri hezitzailearen bideak hori behar luke". Amaia Etxabek garbi du: "Etxea, eskola eta aisialdia. Herriak izan behar du hiru ardatz horien topagunea. Eta herri hezitzailea hirurekin eraikitzen da. Osagarriak dira eta norabidea partekatzea inportantea da, ez daitezen bide ezberdinetan galdu". ■

TXIKITIK ERAGITEN argia eguna 2015

ARGIAri buruzko iritziak jasotzen jarraitzen dugu. Itxaro Borda idazleak kontatu digu lotura ederra dela "mugaren bi aldeetako euskaradunontzat". Eta Kattalin Miner kazetariak berriz, beharrezko hedabidea dela, "bazterretako ahotsak erdigunera ekartzen dituelako".

"Bat-bateko erreakzioetatik urrunago"

Iker Elosegi Euskal Herriko Laborantza Ganbarako koordinatzailearentzat, harribitxia da ARGIA, "berehalako prentsa arruntaren joeratik at gogoeta ekartzen duten gaiak aipatzen dituelako. Mundu hau ulertzeko eta are gehiago mundu hau aldatu nahi badugu, oso beharrezkoa da bat-bateko erreakzioetatik urrunago joatea. Beharrezkoa da denbora hartzea pentsatzeko, ideien trukatzeko, idazteko eta irakurtzeko. Eta ARGIAk horretan bete-betean asmatzen du. Harribitxia da, ARGIAk lortzen baitu gure jendartean hain erroturik dagoen 'ardijoeratik' ateratzea, erran nahi dut zu bezala pentsatzen-bizitzen direnekin bakarrik mintzatzearen joeratik ateratzea. Aski da ikustea ARGIAn aipatzen diren gai, ideia edo pertsonen aniztasuna nolakoa den! Eta horrek du bermatzen hain beharrezkoa dugun eta preziorik ez duen askatasuna!".

Moyua
hileta zerbitzuak
Zure momentu zailetarako
Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
✆ 943 783 447 / 617 442 466
mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com

Lizker
aholkulariak
asesores
Errementari Plaza, 2-3 behea
Tel: 943 71 80 52-943 71 82 06
Fax: 943 71 80 52
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
E-mail: lizker@lizker.com



MADDI SOROA

Alemania eta ordoliberalismoa

Baleren Bakaikoa Azurmendi

✦

EHUko irakaslea, ekonomialaria

ALEMANIAK EUROPAKO HERRIALDEAK bere menpe jartzeko asmoa ez da oraingoa. Ez dira hainbeste hamarkada joan azken-aurreko saiakera egin zuela, baina oker atera zitzaion. Militarki herrialde ugari bere agindupean izan zituen, baina horrela menperatuta eusteak kostu handiegiak ditu.

Bigarren Mundu Gerraren ostean, Alemania neutralizatuta edukitze aldera, Europako Batasuna (EB) deiturikoa sortu zen. Ekialdeko eta Mendebaldeko Alemania batu zirenean, EBk baliabide politiko eta ekonomiko andana ipini zituen Alemaniak erraztasunak izan zitzan, horien artean arauzko defizit publikoa gainditzea. EBko beste herrialdeei debekatu egiten zitzaien.

Hala ere, oro har, iritzi publikoak bereganatuta dauka Alemania dela EBri eusten dion herrialdea, politika europarrak alemaniarrek finantzatzen dituztelako. Eta ez da egia. Izan ere, EBren aurrekonturako estatu kide bakoitzak bere BPGren ehuneko bat esleitzen du eta aurrekontu horretatik zenbait dirutza jasotzen du EBko politika bateratuak gauzatu ahal izateko. Noski, Alemaniak ekartzen duena baino gutxiago eskuratzen du. Beraz, diru fluxu publikoetan saldo negatiboa dauka. Fluxu pribatuetan, ordea?

Alemaniako sistema gehiago kokatzen da ordoliberalismoan neoliberalismoan baino. Doktrina honen arabera, oro har, estatuak esku hartu behar du arau ekonomiko sendoak finkatze aldera, demokratikoki hautatutako legebiltzarrak ezin du jarduera ekonomikoan eragin, ordena ekonomikoak lehentasun izan behar du

Izan ere, Alemaniako merkataritza balantza positiboa da, kanpoan gehiago saltzen duelako inportatzen duen kopuruarekin alderatuta. 2014an, kanpo superabita bere BPGren 7,57koa izan zen eta 2002tik 2014ra bitartean, batez bestekoa, ehuneko 6-7koa. Alemaniaren esportazioen ehuneko 58 EBra doa. Hori dena posible izan da EBko herrialdeen arteko muga zergak desagertu zirelako.

Desoreka hori autorregulatuko zen, baldin eta herrialde bakoitzak bere diru propioa eduki izan balu: Alemaniako markoa birbaloratuko zen eta bere ondasunak garestitu gainontzeko herrialdeetan. Aldiz, defizita jasandako herrialdeen dirua debaluatu da. Egoera hori ordea, iragana da euroarekin. Haatik, desoreka horiek konpontzeko europar diru funtsa bat sortu behar izan zen, eta huts egin ondoren, soldaten debaluazioaren bidez lehiakortasuna handitu da.

Bestalde, superabit horrekin Alemania gai da dirua maileguz uzteko EBko edozein herrialderi, Espainiako Estatuko edo Greziako bankuei, kasurako. Halaber, dirutza uztearen truke interes oparoak ere jaso ditu Alemaniak.

Politika hori guztia doktrina politiko-ekonomiko zehatz baten ondorioa da: *ordoliberalismoa*. Alemaniako sistema gehiago kokatzen da ordoliberalismoan neoliberalismoan baino. Doktrina horren arabera, oro har, estatuak esku hartu behar du arau ekonomiko sendoak finkatze aldera, demokratikoki hautatutako legebiltzarrak ezin du jarduera ekonomikoan eragin, ordena ekonomikoak lehentasun izan behar du.

Hortik sistemaren oinarrizko erakundeak gobernuaren kontroletik at egon beharra: Bundesbank Alemanian eta bere pareko EBZ EBn; gobernuak legebiltzarrari entzun ordez ekonomiako jakitunei jaramon egin behar die eta EBn Europako Batzordeak betetzen du jakitunen papera; merkatu soziala sustatzen da; austeritatea ekonomiako jakitunek behartuko dute; ongizate estatua sozialdemokratek mehartuko dute, ez ordoliberalistek. EBn Alemaniako gobernuak esku hartzea itsusia denez, Troika eta Euro-taldea eratuko ditu inolako babes legalik gabe.

Haatik, EB demokratizatu gura badugu, gizarte zibilak hauteskundeetan agindutako egitarauak gauzatu behar dira, Grezia gauzatzen saiatu zen bezala. Izan ere, Greziak bideak nondik joan behar lukeen erakutsi digu eta ez da gutxi. ■

[* Ordoliberalismoaz gehiago jakiteko irakurri ale honetako Net Hurbil.]

Asisko Urmeneta ✦

Josu Santesteban

Jon Alonso

Idazlea eta itzultzailea ✦

Hautagaitza bateratu baten alde

Hauteskunde orokorrak daude horizontean, eta badirudi aski bereziak izango direla, besteetan ez bezalakoak. Batzuek "bigarren trantsizioaz" hitz egin izan dute, azken urte hauetan bizi dugun giro politikoa definitzeko. Izendapena gehiegizkoa da, beharbada; hala ere aitortu behar da badagoela zerbait horretatik, "meloia ireki" beharko dela uste duelako askok. Hitz korrektoagoekin esateko: gehiegi da prozesu konstituziogile bati buruz mintzatzea, baina denek dakite oso litekeena dela 1978ko konstituzioa ukitu, aldatu, erreformatu behar izatea. Arrazoi bat baino gehiagoarengatik, baina, batez ere, gertatzen dena gertatzen dela, ezer ez delako berdina izango irailaren 27tik aurrera.

Hori horrela, bakoitza bere estrategia prestatzen ari da, orain hartzen diren hautuak epe ertain-luzean indarrean egongo direla jakinik. Zeri esaten zaion ertain-luzea, politikan, eta gauzak gero eta agudoago gertatzen ahal direla jakinik; baina, konparazio baterako, 78koak 37 urterako eman du.

Hala, PP-UPNk laugarren iragankorra kenduko dutela diote, eta zentralismoa areagotzeko beste neurri batzuk hartu. PSOEk federalismo hitza erreskatatu du, itxura batean guardasolaren gisa erabiltzeko, eta EAJk, ohi legez, denetarik esaten du, nork non: oraingoan Ortuzarri egokitu zaio bertsio abertzalea zabaltzea, erabakitzeko eskubidearen alde eta beste; Urkulluk, aldiz, bertsio "errealista-pragmatikoa": estatutuaren erreforma, beti ere PSOEri zeharka begiratuz, zer gerta ere.

Inkognita asko dago airean, eta denak zuhur dabiltza, hauteskundeetan zer gertatuko zain. Gauzak horrela, zer espero dezakegu egiazko aldaketaren eta erabakitzeko eskubidearen aldekook?

Inkognita asko dago airean, eta denak zuhur dabiltza, hauteskundeetan zer gertatuko zain. Gauzak horrela, zer espero dezakegu egiazko aldaketaren eta erabakitzeko eskubidearen aldekook?

Trantsizio garaian haustura demokratikoa deitzen genuen haren alde geundenok, beste aukera bat eduki genezake, hausturarik gabeko trantsizioa iruzur bat izan dela konturatu diren belaunaldi gazteagoekin bat eginda. Hiru ardatz argi hauen inguruan bat eginik: erabakitzeko eskubidea (hasteko, noiz erabakiko dugu zerbait gure estatusari buruz inoiz ezer erabaki ez dugun nafarrok?), politika ekonomiko neoliberal, austerizida eta desberdintasun-eragilearen aurka, eta bizikidetza baketsuaren eta biktimen erreparazio justuaren alde.

Orain ez dute balio trantsizioaren aitzakiek (indar korrelazioa, armada, indarkeria...).

Bakarka joanda emaitza hobeak espero dituenak azaldu dezala zer aritmetika baliatzen duen, zertarako nahi dituen emaitzok, norekin bat egiteko asmoa duen, zer helbururekin. ■

Dani Blanco

Itxaro Borda

✦

Idazlea

Karrikak sutan

Bat baino gehiago ohartu da udaran, laborariek autobideak eta hiri handietako karrika zenbait blokeatu zituztela. Edo pastenarreak eta baratzekariak suprefeturen atarietan barreiatu, ekintzak askotan kontrolik eta neurririk gabeko biolentziaz bukatzen zirela. Arratsetako zortzietako berrietan, Lance Armstrongen zorionak erdietsiz Christopher Froome txirrindulariaren elkarrizketaren aurretik, ikusten ziren FNSEAko arduradunak haserre eta malkotan.

Behi haragiaren prezioen apala salatzen zuten, banatzaile handiek atzerrietatik zitzia are merkeago sartzen dutelako –Argentina ala Zeelanda Berritik honako hegazkin garraio gastuak barne– eta osasuna zaintzeko printzipioaren izenean baldintza sanitarioak gero eta zorrotzagoak direlako Europa zakarrean: ez dira libre nahi dutena, nahi duten bezala egiteko, hau da, herritarrak arraiki pozoitzeko eta hormonaz emokatzeko.

Harrigarriena zera da: nekazari sindikatu ofizialeko afiliatuenganako inpunitatea. Edozein langile taldek edo sasi-hirietako gazte mukizuk laborari horiek eragin kalteen laurdena egin izan bazuten, kartzela eta nazio bilduaren irainak jasanen zituen. ■

GAIZKA IROZ

Anuntxi Arana

✦ ANTROPOLOGOA

Gizaki gisakoak

ALARDE GARAIA ixten duen Hondarribikoak zer ekarriko ote digun geundela, sasoia irekitzen duen Irungo konpainia mistoari begiratuta otu zitzaidan zein gisakoak diren han ibiltzen diren gizonak, adin guztietakoak, ile urdinetatik mutikoetaraino. Justiziazkoa baizik ez dena, eta, halere, zerbait da pribilegiodunak berdintasunaren alde ikustea. Sexismoak sortzen duen amorruan oroitzekoa da errealitatearen beste zati hori, garrantzitsua, minoritarioa denean ere. Eta historian nolabaiteko aurrekariak dituena.

Hor dugu Bernart Etxepare *Emazteen fabore* olerkian, begirada nahiko barkakor eta androzentrista duen arren. "Gizonaren probetxuko emaztea beti da", dio: etxea gobernatzen du, espeziearen segida segurtatzen du, plazer emaile da… Eta atsegingarri direnez, emazteak atsegaleak direlakoan arrangura zirenei erantzun zien ez luketela faltarik egingo gizonek bakean utziko balituzte. Gai bera landuko zuen ondoko mendean Juana Ines de la Cruz serorak, hark ere gizonei leporatzen zizkiela andreen hutsak. Ez ziren feministak, ez de la Cruz eta ez Etxepare, baina bataren arrazoibidea goresten bada, ezin da bestearena gutxietsi, biei aski zaila izango baitzitzaien garai haietan urrunago joatea.

Frantzisko Xabierko santu nafarraren ideiak maizegi topatzen ditugu oraingo gizonengan; eta aski ez balitz, urtero badira Hondarribian neska panpinak, sumindura beltzez mozorrotuak eta parekidetasunari bizkarra ematen. Gutarik inor ez da alienaziotik salbuetsita, eta badira beren zapalkuntza gorestea hautatzen dutenak

Beste muturrean dugu Frantzisko Xabierkoa, konfesoreei aholkatzen ziena sekula ez emaztearen aitzinean aitortzeko senarra dela hobendun, haren errua nabaria bada ere, emakumeak ez dezan deus gaitzestekorik izan gero. Santu nafarraren ideiak maizegi topatzen ditugu oraingo gizonengan; eta aski ez balitz, urtero badira Hondarribian neska panpinak, sumindura beltzez mozorrotuak eta parekidetasunari bizkarra ematen. Gutarik inor ez da alienaziotik salbuetsita, eta badira beren zapalkuntza gorestea hautatzen dutenak.

Horiek hola, feministek jarrera paradoxikoak hartu behar dituzte: alarde mistoa eskatu eta talde ez mistoetan militatu, emazte izateak ez duela baitezpada jarrera itxurosorako berme ematen jakinez eta, aldi berean, eraso sexisten aurkako autodefentsa landuz. Ahantzi gabe, norbaiten balioa neurtzeko sexua irizpide egokia ez baldin bada, ez dela zertan gizonak, gizon direlako, emakumeen etsai naturaltzat hartu. "Emakumea gizakia da" oximoroari ihardukitzeko, parean ezar dakioke: "Gizonak ere jendakiak dira", eta batzuk oso jatorrak. Ez da aurkikuntza bat, ez da bolbora, bakarrik gogoratzeko gogoa –eta hor konpon oximoro, paradoxa eta beste pare alprojak–. ■

ERDIKO KAIERA

ITZULPENGINTZA

Kasu kontrako norabideari:



literatur esportazioa hizpide

Itzulpenez hitz egitean inportaziora joan izan zaigu inertziaz begirada: beste hizkuntza batzuetatik euskarara ekarri denera, ekartzeko dagoenera, ekarritako horren harrerara. Azkenaldian, ordea, alderantzizko norabideari erreparatzen hasiak dira zenbait, eta euskaratik eramaten denak ere badu muntarik. Maria Colera itzultzailearekin, Elizabete Manterola ikertzailearekin eta Xabier Payarekin (Donostia 2016) jardun dugu gaiaren bueltan.

| DANELE SARRIUGARTE |

AZKEN HAMARRALDIAN LORATU DA, bai behintzat modu antolatuan. 2003an eman zuen euskaratik beste hizkuntzetara itzultzeko lehen diru-laguntza Eusko Jaurlaritzak. 2004an jarri zuen martxan EIZIE itzultzaileen elkarteak helburu bereko lehen programa: "Idazlea itzultzailearen lantegian". 2006tik aurrera urtero eskaini ditu EAEko Gobernuak euskarazko literatura nazioartekotzeko poltsak: lehenik Kultura Sailaren bidez, Etxepare institutuaren eskutik gero.

2005aren bueltan ekin zion Elizabete Manterolak doktore-tesiari, euskaratik itzulitako literatura aztergai: "Ikusi genuen kanpora begirako ekoizpena garrantzia hartzen ari zela, eta helburua izan zen katalogo bat sortzea. Gutxi gorabehera bagenekien zer zegoen itzulita, baina zenbakitan jarri nahi genuen, azterketa xehe baten bitartez".

Eta lagungarri suertatu da, Coleraren ustez: "Manterolak egindako lana oso beharrezkoa iruditzen zait, batetik, erreferentzia-iturri gisa, eta, bestetik, aukera ematen duelako itzuli dena aztertzeko, hainbat aldagairen argitan: garaia, generoa (idazleena zein literarioa), helburu-hizkuntzak, argitaletxeak... Interesgarria da horri guztiari erreparatuta ondorioak ateratzea, oinarri baten gainean eta ez usteen gainean".

"Hizkuntza txikiak itzultzerakoan gakoa da zer sistema literariok hartzen dituen erabakiak: hizkuntza txikiaren ala metropoliaren esku dago?"
Maria Colera

Zertarako: elkarrizketa xede

Kontua zertan den zehaztuta, funtsezkoa da beste galdera bati heltzea. Zertarako balio dezake kanpora bidaiatzeak, euskarazko literaturaren eremuan, barne-mailan?

Colerak uste du elkarrizketa sortzeko eta gure paradigmak auzitan jartzeko tresna dela literatura. "Hasieran obraren hizkuntz komunitatearen barruan gertatzen da, baina itzulpenak aukera ematen du elkarrizketa hori beste hizkuntza komunitate batzuekin ere egiteko. Gainera, paradigma filosofiko gehienak hizkuntza inperialetatik datozkigu, eta horregatik iruditzen zait hain garrantzitsua gure hizkuntza ez-hegemonikoak ere itzultzea, mundu-ikuskera nagusia alde askotatik pentsatu eta zalantzan jarri ahal izateko".

Manterolak gehitu du hizkuntzen arteko harremanak lantzeko ere balio dezakeela, "ez daitezen alde bakarrekoak izan, aldebakartasunak batzuetan mendekotasuna sortzen baitu".

Eta, paradigmetara itzulita, geureak ez ezik, geurekiko aurreiritziak ere hausteko. "Euskal gaiak denak izan daitezke", azaldu du Colerak, "baina badago iruditeria finkatu bat euskal gaiak zer diren, euskalduntasun bezatu bat, eta hori eteteko balio dezake zenbait literatur lan itzultzeak".

Nola: batzuetan, zubiak oztopo

Arriskuak ere baditu, haatik. Tartean, nabarmen, jatorrizko mezua lausotzea, telefonoaren jolasean bezala. Payak Ingalaterran irakasle aritu zen garaira jo du: "Aukera izan nuen aztertzeko ea zer espainiar idazle irakurtzen ziren gehien bertako unibertsitateetan, eta lehen hamar autoreen artean sarri agertzen ziren Bernardo Atxaga, Manuel Rivas eta Quim Monzó. Oso kasu agerikoak dira: gaztelania ez beste hizkuntza batean idazten dute hirurek, baina merkaturatzea beste modu batean egin dute, eta begira akademiak nola hartu dituen... Estandarizazio-prozesu bat gertatu da".

Abiapuntuari berari erreparatu dio Colerak: "Hizkuntza txikiak itzultzeko garaian

Aurtengo apirilean aurkeztu zuten Itzultzaile Berriak egitasmoa Etxepare institutuak, Donostia 2016k eta EIZIEk. Argazkian Aizpea Goenaga (Etxepare), erreportaje honetan hitz egin duen Xabi Paya (2016) eta Iñaki Iñurrieta (EIZIE).

gakoa da zer sistema literariok hartzen dituen erabakiak, horrek guztiz baldintzatzen baitu itzultzen dena, itzultzen denaren harrera... Beraz, noren esku dago? Hizkuntza txikiaren literatur sistemaren esku ala hizkuntza txikiaren metropoliaren esku? Metropoliko sistemak bere baitako ale exotikoak kanporatzeko borondatea izan ohi du, zentralitateari kutsu exotikoa ematekoa. Euskararen kasuan, adibidez, sarri zubi-hizkuntza bidez egiten dira itzulpenak, gaztelaniaren bitartez, eta itzuli diren gauza askok ez dute islatzen euskaraz esaten den gauza berbera: harremana baldintzatua dago, eta otzandua".

Itzulpen-moldeen hariari egin dio tira Manterolak: "Arriskuak badaude, noski: egokitu izan zait aditzea Atxagak zuzenean gaztelaniaz idazten duela. Horregatik da garrantzitsua zuzeneko itzulpenak bultzatzea, ahal den neurrian. Hala ere, gauza bakoitza bere garaian ipini behar da: hizkuntza gutxitu bat izanda, ez da harritzekoa garai batean zeharka itzuli izana. Era berean, normalean, argitaletxeak ez dira itzultzaile ezezagunekin fio, eta zuzenean egin dezakeen norbait egon arren, akaso ez dute onartzen. Ondo legoke ikustea zer joera ari garen hartzen azkenaldian: zenbat itzultzen den zeharka eta zer merkatura begira, nork erabakitzen duen nola itzuli, idazlea derrigortzen ote duten bere lana itzultzera... Bestalde, zeharkako itzulpena ez da berez txarra, batzuetan hori da lan batera iristeko modu bakarra. Baina zuzenean egin genezakeen zerbait zeharka egiten badugu, hori aztertu beharra dago".

> **"Arriskuak badaude, noski: egokitu izan zait aditzea Atxagak zuzenean gaztelaniaz idazten duela"**
> Elizabete Manterola

Azken ordukoa

Hasieran aipatzeke laga dugun beste ekimen bat ere bada, orain hilabete gutxi aurkeztua: Itzultzaile Berriak. Donostia 2016k sustatu du, Etxepare Institutuarekin eta EIZIErekin elkarlanean. Apirilean plazaratu zuten deialdia: kanpoko 8 itzultzaile nahi zituzten, bakoitzak euskarazko lan bat itzul zezan bere jatorrizko hizkuntzara. Baldintzak: itzultzaileek eurek aukeratzea euskarazko itzulgaia eta jaioterrian argitaratzeko modua bilatzea. Modalitateak, bi: euskaraz ezer ez zekiten 4 itzultzaile eta gutxieneko maila bat zeukaten beste hainbeste. *Modus operandi*a: euskaraz ez dakiten itzultzaileek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute Euskal Herrian hizkuntza ikasteko, eta zer edo zer badakitenek, aldiz, hilabetekoa. Azkenik, ez da zubi-hizkuntzen erabilera baztertzen.

Ekimenaren bueltan sortutako zalantzen harira galdetu diogu Payari. Baga: nola ikasiko dute hizkuntza hain denbora laburrean? "Inork ez dezala pentsatu euskaraz bizitzeko formakuntza emango zaienik. Itzulpengintzan, batez ere, hizkuntzaren ezagutza pasiboa lantzen da, eta trebakuntza oso espezifikoa jasoko dute. Aldi berean, tandem bana esleituko zaie, EIZIErekin elkarlanean: beti izango dute itzultzaile edo idazle bat ondoan, eta horri esker sare oso interesgarri bat sortuko da, eta jatorrizko testua behar bezala lantzeko erreferentziazko pertsona bat izango dute. Gainera, itzultzaile bakartiaren mitoa hautsi behar da, eta ahalegin garbi bat egin nahi izan dugu erakusteko euskara ikastea beste edozein hizkuntza ikastea bezain zaila edo erraza izan daitekeela".

Biga: euskaraz ez badakite nekez ezagut dezakete euskarazko literatura sakonki; aukeratutako obrak ez ote dira izango kanpoan jadanik ezagunak direnak, ez ote dute kanona areago berretsiko? "Hori baino, oso itzulpen errazeko obrak proposatu dituzte. Aurkeztu zaizkigun itzultzaileak profesionalak dira, eta jakin badakite zer den obra bat itzultzea. Hautagai askok gaztelaniaz dakite eta ezagutza horri egiten diote tira, bai, baina beste askok sarea bilatu dute, euskal etxeen bidez-eta. Merkaturatzeko aukerei ere erreparatu diete, eta argitaletxeen interesak bermea ematen dizu".

Aurrera begira

Ibiltzeko dagoen bideari erreparatuta, azken hausnarketa hizlariek, bakoitzak beretik. Paya: "Euskal literaturaren nazioartekotzean

etxea eraikitzeko dago. Itzultzaile Berriak proiektutik hainbat ondorio aterako ditugu, eta ikusiko dugu ea irizpide batzuk aldatu behar diren, baina ez daukat zalantzarik Etxepare bezalako erakunde batek itzultzaileak trebatu behar dituela. Bere egitekoa bada euskal literatura zabaltzea, zer da hau ez baldin bada irekiera horretarako bideak sortzea? Merkaturatu daitekeen lagin horretan ez badira elementu gehiago sartzen, beti ibiliko gara liburu bera besapean".

> **"Euskal literaturaren nazioartekotzean etxea eraikitzeko dago. Itzultzaile Berriak proiektutik hainbat ondorio aterako ditugu"**
> Xabi Paya

Colera: "Hizkuntza txikien arteko elkarrizketa-zubia etenda dago: edo hizkuntza inperialetatik iristen zaizkigu gauzak edo hizkuntza inperialetara iristen gara gu, baina muga hori beti dago. Oso garrantzitsua iruditzen zait Mendebaldetik kanpoko literaturak geureganatu ahal izatea, aukera bakartzat jotzen ditugun paradigma asko unibertsalak ez direla ikusteko; eta, alderantziz ere, gure txikitasunetik unibertsala txikitu ahal izatea, eta kanpora begira gure ekarpena egitea. Bestalde, zer itzultzen den ez da erabaki neutroa, politikoa baizik, eta legitimoki politikoa, baina erabaki hori zehazten duten irizpideak finkatu behar dira, eta irizpideen inguruan bai eztabaidatu genezake: zer itzultzen den, zertarako, norentzat, zergatik eta nola. Edozer abiatu aurretik bost galdera horiek argitu behar dira, bestela halako inertzia batzuetan sar gaitezke, eta itzulpen-politika zehatzik gabe jardun".

Manterola: "Gaiaren inguruko eztabaida bultzatuko nuke. Gero eta garrantzi handiagoa dauka, eta ez dakit zer politika hartu beharko liratekeen, baina badauzkat hausnarketarako gako batzuk, besteak beste, itzulpena eta esportazioa ez direla beti gauza bera, alegia, barne-kontsumorako ere itzultzen dela. Aberasgarria litzateke hainbat eragile biltzea gogoetara, eta kontrako norantzan badugu adibiderik: Literatura Unibertsala bilduma; Eusko Jaurlaritza, EIZIE eta argitaletxeak batzen dira hor. Azkenik, itzulpenak aztertzen ari garen unean literaturaren beraren funtzionamendua aztertzen ari gara; zer, nork eta nola itzuli den aztertzen dudan arren, azken batean, literaturak berak hartzen dituen joerak ikertzen ari naiz. Garrantzitsua da ikuspegi horretatik abiatzea". ■



TABAKALERA

Nola bihurtu ekosistema oraingoz puzzlea dena

Pasa dira gaizkiulertuak, murrizketak, dimisioak, paralisia, obrak eta beste hainbat gorabehera: aste honetan zabalduko ditu ateak Donostiako Tabakalerak, kulturgune dinamiko izateko asmoz. Ontzia edukiz beteko duten erakundeen aukerak aztertu ditugu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

2015EAN BAI, azkenean Donostiako Tabakalerako makinak dena emanda hasiko dira lanean: irailaren 11n zabalduko ditu ateak publikoarentzat, bost axola egun horretako asturu txarreko efemerideak. Kointzidentziak hor bukatzen ez diren arren: hain justu, bi hegazkinek New Yorkeko dorreak jo zituzten urte berean hasi zen tabako fabrika kulturgune bihurtzen hasteko ibilbide nekosoa. Hamalau urte pasa dira Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eraikina berreskuratzea adostu zutenetik. 2004an erosi zuten edifizioa eta hasi ziren proiektua definitu nahian. Geroztik kontuak eman dituen bueltak esplikatzeko, aldizkari honen orrialde guztiekin ez genuke aski. 2007ko ARGIA batean irakurtzen zaio orduan proiektuko zuzendari zen Joxean Muñozi: "10 urteko epea batez bestekoa da horrelako proiektu bat martxan jartzen denean. (...) Dirua publikoa bada, are konplexuago da". Ez esan inork ez zuenik abisatu.

Itxarongelako denbora amaituta, dena ez da kolpean etorriko, pausoka hasi dira Tabakalera izango dena jendaurrean aurkezten. Ateak ireki baino 10 egun lehenago kulturgune berriko "ekosistema kulturala" presentatu zuten, oraingoz parte hartzea konfirmatu duten erakundeetako ordezkariekin. Zinemaldia, Etxepare Institutua, Zineuskadi, Euskadiko Filmategia eta Kutxa Fundazioa izango dira tabako fabrikako maizter, eta horiekin batera Donostia 2016 ere azaldu zen kazetarien aurrera, nahiz eta ez duen fisikoki Tabakaleran lekurik hartuko –Easo kaleko suhiltzaileenean laketuta dago Kultur Hiriburua–.

Agerraldiko hitza: sinergia. Eraikin berean elkartzea baino gehiago nahi dutela diote, proiektu amankomunak sustatuko dituztela Tabakalera edukiz betetzeko. Hori bai, oso izaera diferenteekin eta egoera nahiko desberdinetan iritsi da bakoitza Egiara. Lehen kolpean, Euskadiko Filmategiak dirudi etxez aldatzearen onuradun nagusia: aspalditik dauka zaharberritzeko beharra, artxibo bat baino askoz gehiago ez izatetik –eta ez oso erosoa, bertan lan egin behar izan duten ikertzaileek diotenez–, lau hamarkadatan bilduta-ko ondarea publikoarentzat programatzeko modua izango du hemendik aurrera, beste herrialde batzuetan egiten duten moduan –Kataluniakoa izan daiteke gertuko adibide bat–. Filmategiko zuzendari Joxean Fernandezek "bigarren jaiotza" gisa deskribatu du Tabakaleran hasiko duten fasea.

Hilaren 18an abiatuko den 63. edizioan bertan probestuko ditu eraikinaren aukerak

Hiru eguneko inaugurazioa

INAUGURATU, behin bakarrik inauguratzen da eta behin hasita, asteburu osorako ekintzak prestatu dituzte Tabakaleran irailaren 11tik 13ra. Jarduera berezienen artean, zaintza kolektiboarekin lotutako tailer esperimentala (hilak 11, 19:00) edo Horkonpon tailerra (12an, 12:00) egunero erabiltzen ditugun tresnak konpontzeko saioa, *do it yourself* espirituarekin.

Zine-aretoa larunbatean estreinatuko da Ivan Zuluetaren *Un, dos, tres, al escondite ingles* filmaren proiekzioarekin. Musika zaleentzat, ostiralean Pottors ta Klito, Chico-Tropico eta Amy Plinen kontzertuak daude. Eta egun berean zabalduko dute Tabakalerako lehen erakusketa ere: *Ikus-entzunezkoaren aldiriak*. Informazio osoa *tabakalera.eu/eu* helbidean.

Irailaren 1ean agertu ziren prentsaren aurrera Tabakalerako "ekosistema kulturala" osatuko duten erakundeak. Elkarlanerako borondatea adierazi zuten eta horrek dirudi eraikina edukiz betetzeko gakoa.

Zinemaldiak. Zabaltegi saileko filmak ikusi ahalko dira bertan, eta festibalaren bulegoak ere hara eraman dituzte, jaialdia martxan dagoenean lehengo egoitzan, Victoria Eugenia antzokian, lekua erreserbatuta duten arren. *A priori*, nazioarteko zinema jaialdiak filmategiarekin eta Zineuskadirekin elkarlanean bide berriak urratzeko aukera izan dezakeela dirudi, ikus-entzunezkoen triangelua osatuz. Zinemarekin lotutako ekintza osagarriak izan daitezke azalera berriaren aukeretako bat.

Ahokatzeko zailak diren piezak

Bestelakoa da Etxepare Institutuaren eta Kutxa fundazioaren egoera. Euskal kultura atzerrian hedatzeko misioarekin jaio zen erakundea da Tabakalerako bizilagunen artean ibilbide laburrenekoa, azken lau urteetan ipar argirik gabe lan egin du, bereziki alor akademikoari garrantzia emanez; eta erakundearen beraren atzerrira begirako ikuspegiak zalantzak sortzen ditu Donostiako eraikinera hurbiltzen den herritarrari eskaintzeko edukiko dutenaz. Aizpea Goenaga Etxepareko zuzendariak *El Diario Vasco* egunkariari egindako adierazpenetan esan zuenez, orain arte euskal kulturaren "joaneko bidaiak" zirudien garrantzitsua euren jardunean, baina Tabakalerak "itzulerakoa" ere kontuan hartzeko aukera emango die. Nola, zehazteke dago.

"Sinergia" hitza erabili dute ahotan Tabakalerako "ekosistema kulturala" osatzen duten erakundeek. Elkarlan batzuk besteak baino errazago aurreikus daitezke

Azkena baina ez herrena, Kutxa Fundazioa: 13 milioi euroko ekarpenarekin sartu da Tabakaleran eta azalera inportantea hartu du eraikinean, laugarren solairua. Urte askotako tradizioa daukaten Kutxa Ikasgelek beteko dute leku hori. Azken urteetan Igeldon antolatzen duten musika festibalaren bidez ezaguna egin den Kutxa Kultur marka indartzeko ere probestuko dute edifizio berria. Beste erakundeekin sinergietarako prest daudela adierazi du Carlos Ruiz Kutxa Fundazioko presidenteak, baina programazioan bere erakundeak daukan "berezko pertsonalitatea" nabarmendu du prentsarekin hitz egin duenean.

Lokal enblematiko pare bat saldu ondoren iritsi dira Tabakalerara: Donostiako Bulebarreko aretoa –orain Burger King bat– eta Arrasate kaleko zinema gela. Aste honetan estreinatuko den eraikinera aldatuta eta eskaintza kulturala bertan kontzentratuta, Kutxak asko irabaz dezake mota honetako jarduerek gizartearen aurrean ematen duten legitimazio sinbolikoan. Besterik da, hori lortzeko bidean kulturarako pentsatutako ondare publikoa nola pasa den esku pribatuetara bestelako eztabaidarik gabe. ■

Helduen literatura

Poemas naufragos: galegoz heldutako poemak
Askoren artean
Itzul.: Joseba Sarrionandia

Susa, 1991



Aberasteko modukoa

GALEGOTIK "gehiegi" itzultzen zen garaikoa da argitarapena: 1991ko maiatza. Zehatzago, maiatzaren 17a, Día das Letras Galegas. Urtero, data horrekin, ospatzen baita egile galegoen eguna, gogoratuz Rosalía de Castrok 1863koan argitaratu zuela *Cantares gallegos* famako hura. Zentra gaitezen gurean: *Poemas naufragos: galegoz heldutako poemak*. *Susa* literatura aldizkariaren 27. zenbakiarekin liburuki bat opari. Joseba Sarrionandiak kartzelan itzulitako poemak. Xosé Estévez eta Iñigo Aranbarrik jatorrizkoak aurkitu eta egile bakoitzaren fitxa txiki bat daraman edizioa prestatu. Eta Koldo Izagirreren sarrera. Elebiduna dena, galegoz eta euskaraz. Zortzi poeta, hamasei poema guztira.

Poetak dira: Manoel Antonio, Luis Amado Carballo, Alvaro Cunqueiro, Aquilino Iglesia Alvariño, Luis Pimentel, Luis Seoane, Celso Emilio Ferreiro, Manuel María. Salbuespen batzuekin (adibidez Cunqueiro, Literatura unibertsalean!), euskaraz hemen baino ez dauden poetak. Noski, denak gizonezkoak. Baina ez da antologia honek islatzen duen arazoa soilik. Urtero, maiatzaren 17ko datarekin, berritzen da polemika. Día das Letras Galegas, berrogeita hamar ediziotik gora, eta hiru dira emakume omenduak: Rosalía de Castro bera, noski, itsusia litzateke bestela. Francisca Herrera Garrido, 1987an. Eta 2007an María Mariño –bide batez, Euskal Herriarekin harremana izan zuen idazlea–. Antologiako zortziak omendu dituzte jada (tira, Manuel María izango da 2016ko idazlea). Eta poesia galegoarekiko interesa agertu duten poeten –Gabriel Aresti, Koldo Izagirre, Itxaro Bordaren– sator-lana aitortuta –Iratxe Retolazaren terminoa erabiltzeagatik–, ez ote den lagina, kanona aberasteko ordua. Antologiako zortzi klasikoen aldean, ez ote luketen Luisa Villalta, Xela Arias gisako klasikoek beharko, bizirik daudenen artean Chus Pato, are gazteagoa María do Cebreiro ez ote genituzkeen gehituko. Bestela antologia beharrezkoa baita, *Poeta katalan garaikideak* haren ildokoa. Kontua ez baita orain arte egindakoa deuseztatzea –egindako gutxia deuseztatzeko gaude ba–, ez bada errebisatu, zabaldu, hobetzea –eta ari gara, ez soilik genero, beste norabide batzuetan ere: Lois Pereiroren euskaratzea adibide–.

Inoiz irakurri izan dut, auskalo non, nori –ze autoritate moduri–, beste generoen aldean poesia garatua duen literatura –eta auskalo zer den hori– literatura azpigaratua dela –eta auskalo zer den hori ere–. Galegoena ikusita, gehiago iruditzen zait niri literatura baten bizitasunaren erakusgarri. Ekarpen berriekin etenik gabe aberasteko modukoa, beti ere. ■

Aritz Galarraga

Hutsartea
Estricalla
Stop Control Antirecords, 2015

Ibilbide irmo eta emankor baten lagina, gau bakarrean

EUSKAL HERRIAN sortutako Estricalla eskola zaharrekoa da zentzu askotan, nahiz eta taldea gazte samarra den: beraien lehen diskoa 2010ekoa da. Ez ditugu beraien biografia eta ibilbidea orain hemen zabal errepasatuko ARGIAko hemerotekan aurretikako lanen iruzkinak aurkituko dituzuelako.

Eskola zaharrekoa dela esatean lehenik eta behin burura etortzen zaigu 80ko hamarkadan eztanda egin zuen punk-hardcorea, doinuetan, jarreran eta egiteko moduan. Eta horiek guztiak ditu Estricallak. Bere kabuz, Stop Control Antirecords zigilu propioarekin eta lan andana eginez barrenak hustu, errebeldia egiazkoa zabaldu eta mimoz erditutako lanak kaleratzen dihardu. Hala, El Corazón del Sapo-ren garai urrunetatik orain arte egindako ibilbideak bere fruituak jasotzen ditu egunez egun hurrengo pausoak elikatuz. Eta badira, gainera, ibilbide horretan are eta esangura handiagoa duten urratsak, bidezidorrean pilatutako lagunek handiagoak egiten dituztenak. Horra hor, esaterako, Dead Kennedys taldeko sortzailea izateaz gain, oraindik ere asaldatzaile hutsa den Jello Biafrarekin batera lan egin izana.

Modu berean, honako lan hau, irudi indartsuz osatutako liburuxka mardula, singlea eta bibliografia oparoa eskaintzen duen *Hutsartea*, eguneroko ahalegin sutsu eta egiazkoarekin pilatutako lagunen beste topaketa berezia da. Aspaldidanik miretsitako SNFU taldearekin Zarauzko Putzuzulo Gaztetxean –etxean– agertokia partekatzeko aukera suertatu zenean, sute txiki horren beste gar bat piztu zen. Halako gau majiko bat! Gainera, talde kanadarreko Mr. Chi Pigek idatzitako hitz bat Estricallarekin abestu eta grabatu zuten, lan honetan entzungai duzuena.

Aspaldiko lagun berezien topaketarekin bat, Ikor Kotx argazkilari zakur-zaharra Zarauzko gau horren lekuko izan zen, eta bere presentziak –eta lanak– egiten gaitu han batutako amorruz, indarrez, elkartasunez, lagunez eta sentimenduz blaitu.

Bost kantuk osatzen dute Estricallaren *Hutsartea* disko berezia.

Argazki-sentsazioz josita ko liburuxka mardula dakar aipagarri dugun disko txiki-handiak. Bere begiradaren filtropean protagonista bihurtzen gaitu Estricalla, SNFU, Arrautz Ustelak eta han bildutako guztiak.

Eta diskoaren lorratzen artean lau deiadar, lau ostikada, lau erditze: *Ice speed* biharko esperantzari uko egin eta RKLren tankerako zapatilla-hardcore-gitarreroarekin; ilunagoa eta oso instrumentala den laino arteko *Skeleton*; SNFUko Mr. Chi Pigek abestutako *Kurling* kalekume destroyerra; eta Ejea de Los Caballeroseko heavy iragana lotsagabeki punk-hardcore gitarreroenearekin ezkontzen duen *Bosleigh*, hain zuzen ere.

Erraietako punk-hardcore asaldatzailearen zaletuontzat arnasa da Estricalla. Eta koordenada horietatik kanpo daudenentzat berriz, lan egiteko eta borroka egiteko eredu bat, diziplina betea eta egiazkoa; tontakeriarik gabe. ■

Iker Barandiaran

| JAKOBA ERREKONDO |
mandio@zerain.eus

Sagar urtea

AURRERA-ATZERA HONETAN, aurtengo uda hau xelebrea doa, bada. Fruituen urte berezia. Tomateak eta piperrak ez dira makal ari, eman eta eman. Itxura kaskarrena lekei eta babarrunei sumatzen diet; udak aurrera eta egun argiak atzera ahala hobetu direla badirudi ere. Horietan ondoena, ia urteroko legez, izalegez edo naturalegez, artoarekin batera bizi diren babarrunak. Eta sekulako sagar urtea da. Adi, ordea, sagardoa egin nahi duenak, beste urteen aldean goiz dator sagarra, hiru bat aste lehenago; batez ere, barrualdeko sagastietan.

Geurean sagar urte oparoa bada ere, Europan bestelakoa diote. Aurtengo sagar uzta iazkoa baino apalagoa izango da. 2013tik 2014ra %15 hazi zen sagar uzta eta 2014tik 2015era %5 inguru uzkurtuko da. Bertakoak estimu hobea izango ahal du. Hamabi milioi tona eskas sagar bilduko ote diren kontuak aipatu dituzte Italiako Meranon duela hilabete inguru bildutako WAPA, Sagarraren eta Udarearen Munduko Elkartearen bilkuran. Kontu horiek guztiak Europar Batasuneko 28 estatuei buruzkoak dira. Europan gehien ikusiko diren aldaerak hauek dira: Golden Delicious, 2,5 milioi tona; Gala 1,3 milioi tona; Idared, 1,1 milioi tona; eta Red Delicious, 0,6 milioi tona. Suitzan, Estatu Batuetan eta Kanadan ere behera egingo omen du aurtengo sagarraren emanak; Ukrainan, Txinan eta Errusian berriz, gora.

EINSTEIN02-CC BY SA

Golden Delicious izango da aurten Europar Batasunean gehien bilduko den sagar aldaera.

Euskal Herrian erdipurdi gara; etxeko datuak ezean, hona kanpotik begiratzen gaituztenenak: Espainian sagar uzta jaitsiko dela badiote (milioi kilotan, 505etik 486ra), Frantzian igo egingo omen da (1.444tik 1.594ra). Klimaren laguntza gozoari esker, kalitate onekoa izango omen da aurten sagarra, eta kalibre ederrekoa. Sagardoa kanpoko sagarrarekin egiten dugunok atzea nola dantzatu asmatzera jartzen ahal gara! Hori bai, hurrengo txotx denboraldiaren irekiera ekitaldi urardotuan, aurtengo sagardoa ona edo oso ona dela esanez etorriko zaizkigu; sagardo gaineko bitsetan, lasaipoto asko. ■

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Egutera ematen duen barrutitxo bat dut Donostia aldean. Laranja eta limoiondo landare bana aldatu nahi nituzke. Zein da sasoi hoberena? Eta inguru hauetarako zer mota da egokiena? Mila esker.

Rafa Garaikoetxea (Donostia)

FIGIU-CC BY SA

Kaixo Rafa. Donostia aldea berez ez da leku txarra zitrikoentzat. Gure itsasbazterra paradisua da. Zitrikoek ez dute hostorik galtzen neguan, eta beraz, udazkenaren sarreran, urri aldera, edota udaberri gozoan, apiril aldera. Bietan egunaren eta gauaren luzera antzekoak dira. Negu-neguan ez behintzat! Egutera horretan hormaren bat bada, haren kontra jarri, babesa areagotzeko.

Nire ustez edozein zitriko mota ondo etorriko da. Behin lan hori hartuta, bereziren bat ere jarri: lima, kunquata, tangerina...

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua **landareak@argia.eus** helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Irakurleek zer diote?

Arrazoi askorengatik asko gustatzen zait uda: eguna luzatu egiten da, oporrak datoz, berokiak armairuan sartu eta praka motzak ateratzen ditut. Baina udan janaz gozatzen dut gehien; baratzeko produktuez batik bat, nahiz eta orain jakin baratzea ez dela uda sasoikoa soilik. Aipatu berri dudan hori ez ezik, beste gauza asko ikasi ditut Bizi Baratzea liburua irakurtzean, irakurketa atsegin, pedagogiko, arin eta errazeko liburua baita.

Hainbat arrazoi nituen liburua erosteko, baina bereziki bi: lehena, Jakoba aspaldiko laguna izatea, eta bigarrena, Berriak libuaren aurkezpena zela eta Jakobari eginiko elkarrizketa. Bereziki markatu ninduen elkarrizketa horrek; bertan, Jakoba beti bezala agertzen zen: zuzena, probokatiboa, kritikoa eta egia biribilak esaten dituena.

Jakoba, konbentzitu egin nauzu. Liburuan esaten duzun bezala, baratzeak, lagunak bezala, denbora behar du, ez gehiegi, baina etengabe. Zin egiten dizut nire etxean dudan 2 metro koadroko alor horretan zure gomendioak jarraituko ditudala, nahiz eta ikasi dudan baratzean, bizitzako beste hainbat arlotan bezala, hutsegiteetatik ikasten dela.

Mikel Garaizabal, enologoa

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAn erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

***Bizi Baratzea* liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai ww.argia.eus/multimedia** helbidean.

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAn erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.
Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Irailak 18
Ozaeta
Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 22
Alegia
Ordua eta lekua zehazteke.

Irailak 23
Algorta
Egizu! elkarteak antolatutako Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan.
19:30ean, lekua erabakitzeke (eguraldiaren arabera)

Irailak 24
Urduña
19:00etan, lekua zehazteke.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

✆ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.eus
✆ 943 371 545

| JABIER AGIRRE |

OME, 10 urte ospitaleetan esku higienea sustatzen



Ospitalean dauden ehun gaixotatik zazpik infekzio bat hartzen dute mikroorganismoen transmisioagatik, ospitaleko langileek beren eskuekin ukitu ondoren. Zifra hori beldurgarria iruditzen bazaigu ere, kontuak ez dira hor amaitzen: infektatutakoen portzentajea %30era irits daiteke medikuntza intentsiboetako unitateetan egoerarik kritikoenean dauden gaixoengan.

Duela hamar urtetik hona, Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) gai horri buruzko kanpaina egiten du urtero, *Arreta garbia, arreta seguruagoa* programaren barruan. Kanpainaren erdigunea Eskuetako Higienearen Munduko Eguna izaten da, maiatzaren 5ean. Aurtengo leloa *Save lives: clean your hands* (Babestu bizitzak: garbitu itzazu eskuak) izan da.

Kanpainaren hamargarren urteurrena bete den honetan, eskuak garbitzeak osasunaren eremuan daukan garrantzia azaltzen duten hamar arrazoi nagusiak gogorarazi ditu OMEk. Horien artean nabarmendu behar da milioika bizitza salbatu direla keinu sinple horri esker; osasun-sistemen segurtasuna azpimarratzen duen kalitate-adierazlea dela; eskuen higiene egokiak infekzioak saihets ditzakeela, eta gaixoen osasunari eta osasun-arretako langileei eragindako kalteak prebenitzeko kostua hamar dolarren azpitik dagoela.

Erronka politiko eta soziala

Egia da osasun arazoak, esate baterako arreta sanitarioari lotutako infekzioak –ASLI akronimoarekin ezagutzen direnak–, ez direla hain erraz azaleratzen, baina gertatu gertatzen dira, eta horregatik konpondu beharreko erronka politiko eta sozialtzat jotzen ditu Osasunaren Munduko Erakundeak. Dena den, beste hainbat kasutan gerta daitekeenaren alderantziz, ez da beti diru-kontua, teknologiarik eraginkorrenak oso merkeak baitira sarritan: horrela, alkoholarekin eratutako disoluzio desinfektatzaileak ASLIak eta horrekin batera baita milioika heriotza ere prebeni ditzake urtero. Gezurra badirudi ere, botilaren kostua hiru dolarrekoa besterik ez da.

"Osasun-langileen laneko fluxuan eskuetako higienerako une edo momentu espezifikoak txertatzeak minuturo, orduro, egunero gauzak behar bezala egitea errazten du", OMEren arabera. Baina horrekin batera, infekzioen prebentzioa da osasun-sistemen indar-gune nagusietakoa. Eskuen higieneak izan behar du beti gaixoari osasun-eremuan egindako esku-hartze guztien oinarria, dela pazienteari gailu mediko inbaditzaile bat ezartzea –pauso-markagailu bat edo belarri barruko inplante bat–, dela zauri kirurgiko bat garbitzea, dela injekzio bat jartzea bezain sinplea dirudien ekintza.

OME erakundeak esku-higienearen inguruan martxan jarri duen kanpaina sare sozialetan ere ari da zabaltzen, #handhygiene traolaren bidez. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak multimedia aholkularitza edukiak

iametza interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Gurutzegrama tematikoa

Gaia: Afrikako ibaiak



Ezker-eskuin:

1. Esaldi. Negar-tanta. Edonola. 2. Alabaren senargai. Ulertzeko ahalmen. 3. Ogidun. Neodimioaren sinboloa. Pozkorra, alegera. 4. **Hegoafrikako Drakensberg mendietan sortzen den ibaia. 2.090 kilometro luze da eta beraren ibaiadar nagusia Vaal ibaia da**. Korapilo. 5. Greziarrak. 6. Egiten duena, ekintzailea. Ardien gaixotasuna. 7. **Ibai honen 2.574 kilometroko ibilbidea Zambian hasten da eta haren ezaugarri nagusia Victoria ur-jauziak dira, munduko handienak**. Eraso. 8. Adia, auhen. Sail, eremu. Aldamenera. 9. Leviren leinuko israeldar. Anfibio mota. Maitasunez, maitasunagatik. 10. Aise. Euskal Herritik Ameriketara joana, gero berriro Euskal Herrira aberasturik etorria. Oraska.

Goitik behera:

1. Pilota gustukoa duena. 2. Koaderno. 3. Tulioaren sinboloa. Bromoaren sinboloa. 4. Ur-korronte naturala. 5. Guztiz triste, nekagarri. 6. Hegazti mota. Zaporetsua. 7. Haserrekor. Barre. 8. Heure. 9. Lurpeko lehergailuak. 10. Zilarraren sinboloa. Emakumeei deitzeko hitza. 11. Haga. 12. Kidea dena. Gorputz atal. 13. **Erdialdeko Afrikako ibai hau Afrikako bigarren ibairik luzeena da. Bere ibilbidean Livingstone ur-jauziak daude**. 14. Zona, inguralde. 15. Sasijainko. 16. Sobera, gehiegi. 17. Seigarren musika nota Txerri-taldea. 18. Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakin bakoitza. Amerizioaren sinboloa. 19. **Afrikako ibairik luzeena, 6.695 kilometro luze da eta Egipton itsasoratzen da. Antzinako Egiptoko zibilizazioaren ardatz nagusia zen**. Abantzu, kasik. 20. Bukaera. Torioaren sinboloa. 21. Zerbaiten maila. Bizkaiko herria. 22. Inaustera behartu.

Betegrama

Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.



5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.- Ezinezkoa. 2.- Kaskar, zarpail. 3.- Beldurra. 4.- Larru (Bizkaian). 5.- Erregela, norma.

Soluzioak



Ezkerra eta eskuina bereizi zituen I-11

VERSAILLES, 1789KO IRAILAREN 11. Batzar Nazional Konstituziogileko ia 1.200 kideak, jauregiko Menus-Plaisirs areto itzelean bilduta, Konstituzioaren artikulu bat eztabaidatzen hasi ziren: parlamentuak onartutako legeei betoa jartzeko eskubidea al zuen erregeak?

Bizpahiru hilabete lehenago, ekainaren 17an, Batzar Nazionala eratu zen eta handik gutxira, uztailaren 9an, legeria berriaren premia ikusita, Batzar Nazional Konstituziogilea. Eta horretantxe ari ziren iraileko egun hartan, konstituzio berriaren edukia zehazten. Gai korapilatsua zen egun hartan egokitutakoa, finean, erregeari eman behar zitzaion boterea baitzegoen jokoan. Batzarreko lehendakaritzaren mahaiaren inguruan batzuk eta besteak iritzia ematen hasi ziren eta taldetxoak osatuz joan ziren. Batzuek ez zuten aldaketa nabarmenik nahi, absolutismoari eutsi nahi zioten. Lehen eta bigarren estatuko ordezkariak ziren gehienbat, kleroa eta noblezia, alegia. Beste batzuek, aldiz, hirugarren estatuko ordezkariak izanik, Luis XVI.aren boterea ahalik eta gehien mugatu nahi zuten, herritarren ordezkarien mesedetan.



Estatu Orokorrak Versailles jauregiko Menus-Plaisirs aretoan bilduta, 1789ko maiatzean. Handik bi hilabetera, Frantziako Iraultza piztuta, Batzar Nazional Konstituziogilea ere gune berean bilduko zen, urrian Parisera aldatu zen arte. Ezkerraren eta eskuinaren arteko bereizketa politikoa areto horretan sortu zen, irailaren 11n.

Pixkanaka bi iritzi eta bi multzo nabarmendu ziren bilera jendetsu eta zalapartatsuan. Aretoaren eskuinaldean kontserbadoreenak bildu ziren, monarkiarekin bat zetozenak, ordura arte erregeak –eta beraiek– izandako botereari eta pribilegioei eutsi nahi zietenak. Aldiz, ezkerraldera joan ziren aurrerakoienak, monarkia abolitu eta errepublika ezarri nahi zutenak, edo gutxienez koroaren botere absolutua neurri batean edo bestean mugatu nahi zutenak.

Inork ez zien esan zer egin behar zuten edo aretoaren zein alde zegokien. Banaketa ezustean eta naturalki egin zen, gerora izango zuen eragina jakin gabe.

Urrian, gortea Versaillesetik Parisko Tulleries jauregira aldatu zen. Batzar Nazionalak "erregea eta herritarren ordezkariak bereizezinak" zirela erabaki zuen, momentuz behintzat –aurrerago, erregearen gorputza eta burua guztiz bereizgarriak zirela erabakiko zuten–. Horrenbestez, Batzar Nazional Konstituziogilea Parisera aldatu zen. Baina han sortutako eskuinaren eta ezkerraren arteko bereizketa ez da gaurdaino aldatu. ■

Arrastoak

4.000 urteko hiria itsaspean



GREZIAKO KULTURA MINISTERIOA

BRONTZE AROKO hiri bat aurkitu dute Egeo itsasoan Genevako Unibertsitateko, Suitzako Arkeologia Eskolako eta Greziako Antzinate Saileko ikerlariek. K.a. 2000-3000 urteen inguruan hiriak garrantzi handia izan zuela uste dute, aztarnategiaren tamainan eta aurkitutako babes elementu ikusgarrietan eta harresi sendoetan (argazkian) oinarrituta. "Garai horretako halako babes egiturarik ez da aurkitu gaurdaino Grezian", Julien Beck Genevako Unibertsitateko kidearen hitzetan. Oraindik ez dakite hiriak zer tamaina zeukan, eta oraingoz 1,2 hektarea aztertu dituzte –bi futbol zelaitik gora, komunikabideek gogokoen duten azalera unitatean adierazita–. Aurkikuntza oso lagungarria izango da Brontze Aroko merkataritza ibilbideak hobeto aztertzeko. ■

6 HILABETEAN BADA ZERTAZ GOZATU

6x0 HIPOTEKA

SARTU ORAIN ZURE ETXE BERRIAN, ETA EZ ORDAINDU EZERTXO ERE LEHEN SEI HILABETEETAN

LABORAL kutxa

Euriborra + % 1,25etik aurrera (*). % 1,951ko UTB aldakorra (**). Interes-tasa nominala lehen 6 hilabeteetan: % 0,000. Kuota lehen 6 hilabeteetan:0,00 €.Irekiera-komisioa: % 0,25. Zazpigarren hilabetetik aurrera % 1,25eko diferentziala izateko, beharrezkoa da lotura-baldintza hau betetzea: *Nomina helbideratuta izatea eta Visa hileko kreditu-txartel baten titularra izatea. *Caja Laboral Banca Segurosen (OBSV) bitartez kontrataturiko etxe-asegurua izatea. *LABORAL KUTXA onuradun duen Caja Laboral Banca Segurosen (OBSV) bitartez kontratatutako bizitza-asegurua edukitzea, eta heriotzagatik eta baliaezintasun absolutuagatik aseguratutako kapitala maileguaren kapitalaren % 50ekoa izatea. *Pentsio Plan batean gutxienez 600 €-ko ekarpen garbia egitea urtero. (**) % 1,951ko UTB aldakorra: 366 hilerako 100.000 €-ko mailegu baterako eta hileko kuotetan ordaintzeko kalkulatu da. Barne hartzen du bizitza-aseguru bat kontratatzea: heriotzagatik aseguratutako kapitala 50.000 eurokoa balitz eta 30 urteko gizonezkoak kontratatuko balu, urteko prima 126,61 €-koa izango litzateke. Arrisku anitzeko etxe-asegurua izatea: edukitzailearen kapitala 100.000 €-koa eta edukiarena 0 €-koa balitz, urteko prima 160,05 €-koa izango litzateke. Kalkulu horretan, honako hauek sartu dira: Gipuzkoan eginiko eragiketa baten Egintza Juridiko Dokumentatuen (EJDen) gaineko Zerga (0 eurokoa) eta Erregistro-gastuak (240 eurokoak), 296,45 €-ko tasazio-gastuak eta 284,35 €-ko gestoria-gastuak. % 2,125eko UTB aldakorra, aurreko suposamenduan ez dela inolako produkturik kontratatu eta Euriborraren gaineko diferentziala % 1,66koa dela kontuan hartuta. UTB aldakorra: kalkulatzeko kontuan hartu da erreferentziazko indizea ez dela aldatzen. Beraz, UTB aldakor hori aldatu egingo da interes-tasen berrikuspenetan. 2015-07-03an BOEn argitaraturiko % 0,163ko Euriborrarekin egindako kalkuluak. Interes finkoaren hasierako epealdia amaitutakoan, interes-tasa aldakorra urtero berrikusiko da. Eskaintza 2015eko azaroaren 15era arte egongo da indarrean, etxebizitza erosteko maileguetarako. Maileguaren zenbatekoa etxebizitzaren balioaren % 70erainokoa izango da gehienez, eta titularren hileko sarreren batura gutxienez 2.500 €-koa, maileguaren kuota deskontatu ondoren. Kuota, berriz, eskatzaileen hileko sarreren baturaren % 20 baino txikiagoa izango da. Finantzaketa jasotzeko, LABORAL Kutxaren ohiko onarpen-baldintzak bete behar dira.

EUSKARAREN ERABILERA

«Motibazio pertsonal sendoan oinarritutako erabilera planak bide motzekoak dira»

Jendeak erdaratik euskarara jauzi egin dezan zer egin behar da, berauek gogotik motibatu ala euskaraz egin beste erremediorik ez duten egoerak sortu behar zaizkie? Pello Jauregik bigarren ideia proposatzen du.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkia: Dani Blanco

2014KO IRAILEAN, Donostian, Emunek antolatutako Moti+batu topaketan eman zuen hitzaldia Pello Jauregi EHUko irakasleak. Izenburua hau jarri zion hitzaldiari: "Portaeratik jarrerara: jokabide urratzaile, egokitzaile eta eragozleak". Ondoko lerroetan hitzaldiaren transkripzio moldatua duzue. Lotura honetan aurkituko duzue bideoa: www.lantalan.com/motibatu-topaketa.

Pello Jauregi: Jarreratik edo motibaziotik jokabidera edo erabilerara nola salto egin hitzaldia emateko esan zidaten. Izenburuan "jokaeratik jarrerara" jarri nuen, eta esan zidaten ea gaizki jarri nuen. Ez, ez. Ondo ulertu dut, baina alderantzizkoa esan nahi dut. Motibazioa oso errotuta duten pertsonek, seguru asko aldatuko dute euren jokaera, beraiek koherente sentitzeko. Ni benetan gaixo jartzen baldin banaiz erdaraz egiten dudalako, benetan euskara maite badut, eta nire jokaera erdaraz bada, saiatuko naiz koherente izaten, eta oso errotuta daukadanez euskaraz egin behar dudala, nire jokaera aldatuko dut. Hori egia da. Baina nire ustez, oso gutxitan gerta daiteke, ezin da orokortu. Interbentzio guztiak [euskara planak garatzen dituzten eragileei ari da hizketan] ezin dira planteatu ildo horren arabera. Motibazio pertsonal sendoan oinarritutako erabilera planak bide motzekoak dira.

Koherentzia bila

Pertsonok koherentzia bilatzen dugu. Adibidez, gerta daiteke gure harreman sareetan [lantokian] behartuak izatea beste hizkuntza jokaera batean aritzera [euskaraz egin beharra]. Pertsona hori ez dago ohituta, sisteman desoreka sortzen du, baina jendea hasi da [euskaraz] hitz egiten, nagusia ere bai, txostena hizkuntza horretan iritsi zaio… Norbanakoa horrelako egoera sozial batean murgilduta badago luzez, eta ihesbide gutxi baldin badauka, azkenean berak aldatuko du jarrera. Beraz, jarrera, euskararekiko hurbiltasuna, etorriko zaio euskarazko jokabidean murgilduta egon delako. Beraz, jokabidetik jarrerara egiten dugu. Niri, bigarren hau interesatzen zait.

Muina, bihotza, jende motibatua, indarra duena, behar da alde batetik. Baina jende gehienak aldaketa egingo du ez motibazioagatik, ez kontzientziagatik, baizik eta daukaten giro sozialera egokitu beharko dutelako. Giro soziala gutxiengo motibatuak sortuko du, eta besteak moldatu egingo dira, jokabide egokitzailea hartuko dute. Oso motibatuta daudenek jokabide urratzailea dute, inguruan daukatena urratuko dute, beraiek ondo sentitzeko. Bi indarrak uztartu behar dira. Inozoak izango ginateke pentsatuko bagenu gizarte guztiak motibazioaren bidez egingo duela aurrera.

Borondatea ez da nahikoa

Bi diskurtso dauzkagu. Batetik, borondatearen diskurtsoa, motibazioarena daukagu, eta bestetik, diskurtso soziologikoa, neurri sozialak. Zer gertatzen zaigu borondatearen diskurtsoarekin? Egoera sozialekin haserre gaudenean, lagunekin hizketan hasi eta esaten dugu: "*Kauen la puñeta*, denak elkartuko bagina, aterako genuke dirua bankuetatik eta bankuek porrot egingo lukete". Edo: "Langileok elkartuko bagina halako murrizketarik ez lukete egingo". Edo: "Euskaldun guztiak batuko bagina…". Gutxitan datoz benetako aldaketak hortik. Zergatik? Guk borondatea erabiltzen dugulako, baina bankuek, enpresek… neurri sozialak erabiltzen dituzte. Gainontzekoak egokitu egiten gara horretara. Indar handiagoa dauka gure jokaera sozialak gure borondateak baino. Euskal Herria erdaldundu da, eta ez da erdaldundu jendearen borondatez, baizik eta beste erremediorik ez zegoelako, neurri politikoak, ekonomikoak, militarrak hartu direlako, eta gizaldiz gizaldi horretara egokitzen joan gara. Gaur egun, lasai funtzionatzen dugu gaztelaniaz, gure jarrera jokabide horretara egokitu dugu. Zer dela eta aldatuko dugu gure erosotasuna, ondo funtzionatzen duen gauza batetik egoera konplikatu batera? Nork egingo du? Gutxi batzuek,

baina denek ez. Energia gero eta gutxiago dago, eta ez da harritzekoa.

Frankismoa su piztaile

Noiz egon da gizartean kontzientzia maila altuena? Frankismoaren bukaeran. Egoera sozial latza zegoen, eta batzuek amorruz, injustizia eta inpotentzia sentsazioz erantzun zuten. Multzo sozial batean emozio sozial horiek sortzen eta errotzen badira, hortik etor daiteke kontzientzia eta motibazioa, eta gauzak aldatzen saiatzea. Azken 30 urteetan emozionalitate soziala jaitsi egin da halabeharrez. Gaur egun euskararen errepresioa ez da begi-bistakoa. Seguru asko Nafarroan askoz ere kontzientzia gehiago egongo da, egoera soziala latzagoa delako. Baina gure seme-alabak [hitzaldia Donostian eskaini zuen] ikastolara joan dira normal-normal, euskaraz egin dezakete nahi badute. Orduan nondik sortuko da motibazioa? Kontzientzia gutxi batzuek izango dute, eta gutxi horien esentzia erabili behar da ingurukoak moldatzeko, egokitzeko.

"Jende gehienak euskararako aldaketa egingo du ez kontzientziagatik, baizik eta daukaten giro sozialera egokitu beharko dutelako"

Lankide zirikatzailea

Lantokietako langile bikoteak aztertu ditugu. Gaztelaniaz hitz egitetik euskaraz aritzera pasa dira. Bietako batek motibazio handia du eta prozesuari eusten dio. Besteak bere burua eramaten uzten du, egokitu egiten da. Eman dezagun adibide bat: "Euskara ikasten ari zarela jakin dut, euskaraz ulertzen duzula, beraz, hemendik aurrera euskaraz egingo dizut". Euskaldun kontzientziatuak hartutako jokaera da, besteari ez zaio beste erremediorik gelditzen, harekin euskaraz egitea baino. Ohitzen joan da, gaitasuna eskuratzen, jarrera aldatzen, euska-

"Nola sortu inertzia edo neurri sozialak euskararen erabilera ezinbesteko bihurtzeko? Gero eta gehiago jarri behar duzue burua horretan".

KONTSEILUA

"Lasai funtzionatzen dugu erdaraz, gure jarrera jokabide horretara egokitu dugu. Zer dela eta aldatuko dugu gure erosotasuna ondo funtzionatzen duen gauza batetik egoera konplikatu batera? Nork egingo du? Gutxi batzuek, baina denek ez".

ra erabat erabilgarri bihurtuko zaio. Jarrera aldatu du jokaera egokitzaile bat eduki behar izan duelako, ez nahi zuelako.

Baietz euskaltegiko irakasleek gaztelaniaz egin

Motibazioaren eta neurri sozialen arteko jokoa ikusteko adibide bat gogoan daukat. Orain dela hamarren bat urte, euskaltegietako irakasleentzako graduondokoa antolatu genuen unibertsitatean. Pentsatzekoa zen irakasle haiek euskaltzale amorratuak zirela. Formazioa eman zuten bi irakasleren artean apustua egin zuten: Baietz lortu klase bukaeran euskaltegiko irakasleek erdaraz hitz egitea. Zeinek dauka indar handiagoa, irakaslearen autoritateak ala jendearen motibazioak? Euskarari eutsiko ziotela esan zuenak apustua galdu zuen. Nola lortu zuen? Erdarazko materiala eraman zuen, eta materiala komentatzerakoan erdaraz hasi zen, eta jendea poliki-poliki, plinplin, artalde hartako buruak jarri zuen amuan erori zen. Niri hori interesatzen zait. Nola sortu inertzia edo neurri sozialak euskararen erabilera ezinbesteko bihurtzeko? Gero eta gehiago jarri behar duzue burua horretan.

Arrasate eta Ezpeletako langileek zein hizkuntzatan egingo dute?

Demagun Arrasateko kooperatiba batean langile gehienak euskaldunak direla. Euskara-frantses elebidun diren Ezpeletako hamar langile kontratatuko balituzte zer gertatuko litzateke? Elkar egokitzeko daukaten zentzuzko modu bakarra euskaraz hitz egitea da. Mekanismo sozial bat da hori, koherenteak izateko beharra daukagu, oreka bilatzen dugu. Batzuetan ordea, joera horren kontra egiten dugu, jokabide urratzailea dugu, ez gaude ados eta borroka egiten dugu. Borrokarik egiten ez badugu, hamarretik bederatzitan egokitu egiten gara. Ezpeletako eta Arrasateko langileek euskaraz egingo lukete, modu naturalean. Mekanismo sozial horri simetrikotasuna deitzen diot.

> **"Oso latza da norbanakoari gizarte araua urra dezan eskatzea eta erantzukizuna bere bizkar gainean eramatea"**

Euskararen aldeko inertzia

Bada beste mekanismo sozial bat, "eskatu ezean arauzko aukera" deitzen diot nik. Taldean, sailean, erakundean, familian, kuadrillan… esan dezakezu inertziaz euskaraz jokatuko dela. Adibidez, lantokian txosten guztiak euskaraz egingo dira, eta norbaitek gaztelerazkoa eskatzen badu pasako diogu. Zer gertatzen da mekanismo hori dagoenean? Inertzia edo mekanismo sozialak euskararen aldera jotzen du, errazagoa da horretara egokitzea, beste hizkuntza eskatzea baino. Beste hizkuntzan eskatzeak deserosotasun txikiak sortzen ditu: zer pentsatuko dute nitaz; operazio batzuk gehiago egin behar ditut gaztelerazkoa lortzeko; gaurko behar dut eta agian itzulpena bihar arte ez didate egingo…

Motibatuenak babestu

Oso latza da norbanakoari gizarte araua urra dezan eskatzea eta erantzukizuna bere bizkar gainean eramatea. Abiapuntua kontzientzia dutenek euskara erabiltzea da, horiek euskaraz egiten dutenean sortzen baita egoera soziala. Baina hala izateko taldean, enpresan, erakundeko sailean, haien jokaerak babesteko neurriak hartu behar dira. Pertsona horiek euren jokaera zilegi dela sentitu behar dute. Horrek ez du esan nahi babesleek izugarrizko gogoa adieraziko dutenik, baina gutxienez ez dira kontra egongo. Soziologikoki jende gehiena multzo horretan gaude.

Hirukotea: jende motibatua, jende arrunta, babesa

Laburbilduz, euskara planak hiru gauza hartu behar ditu kontuan. Lehenik, bihotz bat, kontzientziaduna, jokaera urratzailea izango duena, inguru sozialeko oreka apurtuko duena. Bigarrenik, inguruan egongo den jende arrunta, kontra egongo ez dena, prest dagoena egokitzeko dagoen horretara. Hirugarrenik, neurri babesleak, denok adostuak, edo behintzat zilegitasuna emango diotenak euskara hutsezko jokabideei. Euskara hutsezko jokabidea ingurune sozial batean kokatzen dugunean, inguruan zurrunbilo egokitzailea sortzen dugu, eta hortik etorriko da euskara zabaltzea. Seguru asko, gurean, ikuspegi psikologikoa, norbanakoan oinarritutakoa, asko lantzen da. Nire proposamena ikuspegi soziologikoan, harreman sareetan, burua gehiago jartzea da. ■

Herritarren konpromisoa txantxitan neurtzen da Oñatin

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

Tokiko ekonomiarekiko konpromisoa eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko sortu da txantxia, herriko kontsumoa fidelizatu eta gastu-ihesa murriztuz. Oñatiko saltokietan erabil daiteke eta euroarekiko trukean %5eko hobaria du.

Txantxia

Zer da? Oñatiko moneta soziala.
Erakunde jalgitzailea: Oñatiko Udala.
Non erabili daiteke: Oñatin.
Atxikitutako saltokiak: 91.
Noiztik martxan: 2014ko urria.
Truke-tasa: 100 euro = 105 txantxi.

OÑATIARRA da Amaia. Larunbatero gisan Aldapa tabernan geratu da lagunekin, eta etxerakoan, ogia erosi du Errota okindegian. Baina ez du, ohi bezala, eurotan ordaindu, ezta txartelarekin ere. Asteazkenean truke bulegoan lehenengoz hartu zituen kolore biziko billeteak erabili ditu: Oñatiko moneta soziala diren txantxiak. Lehenengo aldia izan da; ez da azkena izango ordea. Erosterako orduan txantxi bakoitzak euro banaren balioa badu ere, trukea egiten duenean %5eko hobaria ematen diote: 100 euro trukatuz gero, 105 txantxi. Denera, sei billete desberdin daudela jakin du: 20, 10, 5, 1, 0,5 eta 0,10 txantxiri dagozkionak, Oñati eta inguruko leku adierazgarrienen irudiekin.

Hiru hilabeteko epean erabiltzen ez baditu, txantxiak eguneratu egin beharko ditu balioaren %3 galduz. Baina badaki ez zaiola horrelakorik gertatuko, ohiko 91 saltokitan onartzen baitituzte: iturgintza enpresatan, harategietan, ile apaindegietan, liburu-dendetan…

Merkataritza txikiari bultzada

Enpresa haietako baten jabea eta arduraduna da Miren. Txantxia martxan jarri zen unetik bertatik erabaki zuen atxikimendua ematea, Oñatiko merkataritza txikia laguntzeko neurriak ezinbestekoak zirelakoan. “Horrelako neurririk ezean, Oñatin sortzen den diruaren zati handi bat kanpoan xahutzen da”. Oraindik erosleen gehiengoak ez du txantxirik erabiltzen, baina nabari du pixkanaka gero eta jende gehiagok eman duela pausoa, eta piztu dituela hainbat hausnarketa tokian tokiko kontsumoaren garrantziaz. Txantxiak nahi duenean alda ditzake euroen truke, baina %3a galtzen du hala eginez gero. Horregatik, ahal duenetan atxikimendua eman duten beste merkatariei behar duena erosteko erabiltzen ditu.

Gizarte ekimenetarako diru-funtsa

Mirenek eta gainontzeko merkatariek txantxiak eurotara trukatuz gero erauzten zaien %3 horrekin, gizarte ekimenetara bideratzen den diru-funtsa osatzen da. Aurkezten diren proiektuen artean, merkatariak eurak dira diru hori zertarako erabiliko den erabakitzeko aukera dutenak. Halaber, txantxia bera mantentzeko ezinbesteko gastuei ere funts horrekin egiten zaie aurre.

Udaletik bertatik, aurrera begira ahalegina egiten ari dira moneta sozialak gero eta bide sakon eta oparoagoa izan dezan. Horretarako, sariak txantxitan ematen dituzte, besteak beste, eta hainbat enpresek langileei soldataren zati bat txantxitan ordaintzea ere ari dira sustatzen. ■

ESPETXE POLITIKA

Jose Luis Elkoro erabat aske, zortzi urteren ondoren

Ezker abertzaleko militante historikoari 2010etik zeraman orkatiletako telematikoa kendu diote.

URKO APAOLAZA AVILA

Jose Luis Elkoro 2010ean irten zen espetxetik, baina ordudanik orkatiletako telematiko batekin egon da, eguneko ordu gehienetan etxetik irten ezinik. Bost urteotan astero joan behar izan da Martuteneko espetxera paper bat sinatzera, eta ekitaldi politikoetan parte hartzea debekatu dio epaileak.

Irailaren 2an erabateko askatasunean geratu zen, espetxetik deia jaso ondoren. Hasierako hitzordua biharamunean zuen Elkorok, baina politikari ohia kaleratzeko sortutako Mugituko Da plataformako Joseba Moñuxek Argiari azaldu dionez, egun horretarako bergarar ugari joatekoa zen Martutenera bi autobusetan eta, euren ustez, espetxeko arduradunek hori saihestearren aurreratu zuten libre uztea. Nolanahi ere, Elkorori lehen harrera egin zioten Bergarako Munibe plazan.

Argazki Press / Raul Bogajo

Erabateko askatasuna lortu bezain laster egin zioten lehen ongi etorri publikoa senide eta lagunek Elkorori, Bergarako Munibe plazan.

Birritan espetxeratua

1935ean jaioa, 80 urte ditu Elkorok eta 1976ko alkateen mugimenduan giltzarri izan zen. Urte luzetan politikara emana, 1997an atxilotu zuten HBko mahai nazionaleko beste kideekin batera. 18 hilabete egin zituen espetxean.

Epaileak 18/98 auzian inputatu zuen *Egin* egunkaria itxi ondoren eta 24 urteko kartzelara zigortu. 2009an epai irmoa kaleratu zenean –8 urtera jaitsi zioten zigorra– berriz atxilotu zuten eta 2010ean irten zen espetxetik kontrolpeko baldintza oso gogorrekin.

Mugituko Da plataformak azaldu duenez erabateko askatasuna lortzeko gakoa izan da epaileak aintzat hartzea 1997 eta 1998an espetxean igaro zituen hilabeteak –Konstituzio Auzitegiak errugabe jo zituen HBko kideak–.

Trantze historikoak

Bergaran ekitaldi politikoa antolatu zuten irailaren 4an, "Jose Luisek askatasuna berreskuratzean bakearen eta batasunaren aldeko mezua zabaltzeko" helburuz, Moñuxen esanetan. Besteak beste, Bergaran alkate izandako guztiek hitz egin zuten, baita Elkorok berak ere, eta Arnaldo Otegiren idatzia irakurri zen: "Egun, bide luzea egin dugun honetan, berriz ere Erreformaren edo Haustura Demokratikoaren arteko talka ate-joka dugu. Orain dela 35 urte halako trantze historikoan egon ziren Jose Luis eta berarekin batera Herri Batasuna antolatu zutenak. Horregatik behar ditugu orain ere bidelagun". Elkorok Otegiren hitzak eskertu eta "bera bezalako liderrak" behar direla nabarmendu zuen.

Hainbat urtetan lehenengoz politikaz askatasunez hitz egin ahal izan du militante historikoak. *Goiena*ri eskainitako elkarrizketa batean honakoa azaldu du: "Ez da momentu itxaropentsua, zatituta gaudelako, baina ikusten ditut argi batzuk. Gure Esku Dago bada argi bat; gai bagara hori indartzen, egin daiteke bide bat alderdien gainetik".

Laguntzeko prest azaldu den arren, Elkorok ez du asmorik berriz ere "politikan sartzeko", baina beste aukera asko ikusten ditu "Euskal Herriaren alde lan egiteko". ■

Euskara ‘praktikoa’ ikasteko garaia

AEK

Euskaltegietan izena emateko garaia dela, alegia. Besteren artean, AEK-k ere kanpaina abiatu du *Euskara praktikoa* lelopean. AEK-k ikasleari adierazi nahi dio egunerokoan eta lanean erabili ahal izateko euskara ikasteko metodo eraginkorra aurkituko duela bere euskaltegietan, “nahi duzuen guztia ulertzea, nahi duzuen guztia esatea” lortu ahal izango dutela.

Sakanako Mankomunitateak, bestalde, nafar guztiak gonbidatu ditu euskara ikastera eta kanpainarako ondoko leloa aukeratu du: *No me dejes a medias / Ez utzi erdizka*. Euskaltegian, etxean, ikastetxean euskalduntzen hasi eta erdizka geratu direnei edo ikasi arren erabiltzen ez dutenei zuzendu diete kanpaina.

Bahea

Goiena.eus-en Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariari egindako elkarrizketatik:

“Zigor Etxeburuak utzitako lekuan diharduzu lanean. Baduzu haren politikak jarraitzeko asmorik?

Etxe honetan badago ardatz bat hizkuntzaren gaian oso atzetik datorrena eta eten handirik izan ez duena. Lehenago egon diren euskara zuzendariek ere metatu dute aurrekoek egindakoa. Ñabardurekin, erritmo ezberdinekin, hobekuntzekin… baina koherentzia batekin. Duela urte asko erabat erdalduna zen etxea gaur egun elebiduna da. Eta ez nator lehendik ondo egindako ezer apurtzera. Egongo dira egokitzapen batzuk, edo ñabardura batzuk, baina jarraituko dugu lehengo ildotik.

Ze berritasun dakarzu?

Berritasun nagusia begirada luzatzea litzateke. Estilo kontua izan daiteke. Ormaiztegin jaio garenok badakigu zubiak zenbateraino diren garrantzitsuak eta sozialki Debagoienean hazi garenok lankidetza ere zein garrantzitsua den badakigu. Estilo aldetik, zubiak eta lankidetza oinarri hartuko dituena, eta, bestetik, begirada luzea izango duena. Euskararen biziberritze prozesua geldiune edo bidegurutze baten dago. Ziklo luze batetik gatoz. Emaitzak hor daude. Asko aurreratu da. Baina, aldi berean, jomuga batzuk erdietsi baditugu ere, gauza berdinak eginez lorpenak berdinak ez dira izango. Beharrezkoa da begirada luze bat. 25 urtekoa-edo”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Pentsio miserableak

Espainiako Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak abuztu arteko pentsioen inguruko datuak publikatu ditu. Iturri ofizial horren arabera, Hego Euskal Herriko pentsionistak dira Espainiako Estatuan ordainsari handiena jasotzen dutenak –hilean 1.080 euro, Estatuko batez besteko 888 euroren aldean–, eurak baitira nominatik gehien kotizatzen dutenak. Hemen sartuko lirateke erretiroan daudenei, ezintasun iraunkorra dutenei eta alargun eta umezurtz direnei emandako laguntzak. Erretiroagatik ematen diren laguntzak dira poltsa horretako zati handiena, zehazki %63,5 eta batez beste 1.236 euro hilean.

Estatistika horiek, ordea, beste errealitate bat ezkutatzen dute, hala nola mila eurora iristen ez diren pentsionisten portzentaje altua –kopuru hori hartu ohi da oinarrizko beharrak asetzeko gutxieneko gisa–. Hego Euskal Herrian pentsioa jasotzen duten 660.000 lagunetik 454.064 dira mila euro horietara iristen ez direnak, %68,8 alegia. Hau da, hamar pentsionistatik zazpik mila euro baino gutxiago jasotzen du. Gainera, horietatik 312.163 lagunek (%47,2) 648,6 eurotik behera jasotzen dute; 2015eko lanbide arteko gutxieneko soldatara ez dira iristen beraz. Pentsiodun gehien biltzen dituen diru-sarrera tartea 350 eurotik 600 euro artekoa da, 253.443 pertsonak jasotzen dute tarte horretan dagoen diru kopurua hilero.

Horri gehitu behar diogu urtero handitzen den balioa ez dela %0,25era ere iristen –hilean euro bat edo bi– eta pentsioen etorkizuna ezezaguna zaigula –pentsioen kutxa xahutzen ari dira eta Gizarte Segurantzak defizita bikoiztu du aurten, 4.400 milioi eurora iristeraino–. Gure pentsionistentzako errealitatea odoltsua da. Pobrezia dakarten pentsio miserableak dira. Beharrezkoa da berezko gizarte segurantza baten alde borrokan jarraitzea, aditu askoren ustez halako tresna bat jasangarria bailitzateke Euskal Herrian. Bitartean, euskal erakundeek konpromisoa hartu beharko lukete 1.000 eurora iristen ez diren pentsio baxuenak osatzeko.

Juan Mari Arregi

ERREFUXIATUAK

Zein paper izan du Mendebaldeak errefuxiatuen herrietan?

Azken hilabeteotan errefuxiatuen krisi larria bizi du Europak. Airez, baina bereziki lurrez nahiz itsasoz, immigrante asko ari dira Europara iristeko ahaleginean. Hala ere, sarritan ez da jakitera ematen zergatik egiten duten ihes sorterritik. Herrialdeotan oso baldintza gogorretan bizi dira, eta Mendebaldeko potentziek badute zerikusirik egoera horrekin.

| MARTIN MENDIZABAL GARAI |

GINEBRAKO KONBENTZIOAREN arabera errefuxiatua da "arraza, erlijio, nazionalitate, talde sozial edo iritzi politikoengatik jazarria sentitzen den oro eta horren ondorioz bere herrialdetik kanpo aurkitzen dena". Baina zergatik ari gara hizketan 2. Mundu Gerratik Europak jasan duen errefuxiatu krisi latzenaz? Asilo eskaera gehien egiten dituzten siriar, libiar, eritrear, irakiar eta afganistarren egoera aztertu eta Mendebaldeak herrialde horietan izandako esku hartzea errepasatuko dugu.

Siriatik dator errefuxiatu gehien

Siria dute gatazka gune horietan Europara iristen diren etorkin gehienen jatorrizko herrialdea. Sirian 2011. urtean gerra hasi zenetik 310.000 hildako izan dira, horietatik 100.000 zibil. Ondorioz ia 4 milioi pertsonek herrialdea utzi behar izan dute. Immigranteak baliabide urriak dituzten pertsonak direnla uste izaten den arren, kasu honetan klase ertaineko lagun askok utzi dute beraien herrialdea.

Sirian 250.000 pertsona setio-egoeran bizi dira eta milaka atxilotu edo desagertu daude –horien artean Antonio Pampliega, *Berria*ko kolaboratzailea–.

Zenbait iturriren arabera, geroz eta argiago dago Estatu Islamikoaren atzean Europar Batasuna eta AEBen finantziazioa dagoela. Gainera Bassad al Assad Siriako presidentearen oposizioko hainbat miliziek armak eta azpiegiturak jaso dituzte, bai Turkiatik –Europa eta Ekialde Hurbileko zubia– bai Arabia Saudi edota Katarretik.

Amnistia Internazionalak berriki emandako datuen arabera, arma esportazioen rankingean AEBen, Txina eta Errusiaren atzetik Europar Batasuneko hainbat herrialde daude: Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainia besteak beste. Herrialde germaniarraren kasuan, 2014an arma esportazioen aurrekontua bikoiztu egin zuen, 2013an bideratutako 757 milioi dolarretik 1.500 milioitara igaro zen.

Arma esportazioen rankingean AEBen, Txinaren eta Errusiaren atzetik Europar Batasuneko hainbat herrialde daude

Libia, NATOren interbentziotik txikituta

Libia Europara iritsi nahidutenentzako azken portua da, baita Afrikako herrialde gehienetatik iristen direnen topalekua ere. Kasu batzuetan Libiara iritsi baino lehen bi urtetik gorako bidaia egin ondoren etorkinek oso egoera latzak jasan behar dituzte: kartzelaratzeak –batzuk bertan hiltzen dira–, eta mafien bahiketak, batez ere azal beltzeko lagunek. 2011. urtean, Frantzia eta Erresuma Batuak sustatu zuten NATOren interbentzioaren ondorioz eta Gadafi, Libiako presidentea hil zutenetik herrialdeak ez du bururik altxa: Estatu Islamikoari atxikita doazen takfiri taldeek indar handia hartu dute Libian, baita etorkinekin negozioa egiten duten giza trafikatzaileek ere. Gertaera horiek kaos egoera iraunkor batean utzi dute herrialdea, eta edozein momentutan NATOren beste interbentzio militar bat justifika lezakete.

Libia petrolio erreserba handienetakoa duen herrialdea da, munduko petrolioaren %3,5aren jabe da, AEBen bikoitza. Horrez gain, gasa ere badauka. Horregatik, herrialdeak interes geopolitiko handiak dauzka, Libia eta Italia batzen dituen Greestream gas hodia, adibidez. Libia erdialdeko Afrikara iristeko atea da: Frantziaren eraginpean dauden eta petrolioa eta uranioa dauzkaten Chad eta Nigerreko herrialdeekin muga egiten du, eta horrek oso erakargarri egiten du.

Gadafiren garaian –NATOren interbentzioa baino lehen– Libiari "Afrikako Suitza" deitzen zitzaion. Libiak Afrikan Giza Garapenaren Indizerik altuena zeukan: Munduko

Osasun Erakundearen arabera herritar guztiek –errefuxiatuek barne– osasuna dohain zeukaten. Gainera hezkuntza dohainik zen eta Afrikako alfabetizatze tasa handiena zeukan. Gaur egun milioi erdi barne errefuxiatu dauzka, eta Afrikako herrialderik arriskutsuenetakoa da.

Eritrea: errefuxiatu asko, informazio gutxi

Italiaren kolonia izan zen Eritreak 1993. urtean lortu zuen independentzia. Afrikako herririk isolatuenetakoa da. Edonola ere, herrialdearen hegoaldean Babel Mandebeko itsasartearen jabe da, Indiako ozeanoa eta Mediterraneoa –Itsaso Gorria eta Suezeko kanalaren bitartez– batzen dituen lotura estrategikoa.

Siriarren atzetik Europan asilo eskaera gehien egiten dituzte eritrearrek. Herrialdearen inguruko oso informazio gutxi dago eta komunikabideek ikuspuntu desberdinak jasotzen dituzte: BBC berriki zabaldu duen erreportaje batean Eritreako askatasun eskasen inguruan mintzo da: zerbitzu militarra urte askoan luzatzen da eta kartzela ilegalak existitzen dira.

Aitzitik, HispanTVk beste ikuspegia eman du: Etiopiaren aurkako gerraren ondoren –1998 eta 2000. urteen artean– herrialdea lur jota geratu zen. Ekonomia asko handitzen ari da, baina hala ere NBEren santzioak jasaten ditu eta horrek zailtasun asko ekarri dizkio. Wikileaksek 2009 urtean argitaratu zituen dokumentuen arabera, AEBek agindu exekutiboa onartu zuten Eritrearen aurka, herrialdea estutu egin behar dela esanez.

Iraken AEBek sorrarazitako gerrak amaierarik ez

2003an AEBek Iraken aurka hasi zuten gerrak milioi erdi hildako utzi zituen, eta 1,7 bilioiko kostua izan zuen Nazioarteko Ikasketen Watson Institutuaren txostenaren arabera. Barack Obama AEBetako presidenteak 2010ean operazio militarren amaiera iragarri arren, inbasioko urteetako politika bera darama egun. 2015ean Estatu Islamikoaren aurrekontua 2.250 milioi dolarretakoa zen. Baina nola finantzatzen da taldea?

Zenbait adituren arabera Estatu Islamikoak Irak iparraldeko hainbat petrolio putzu kontrolatzen ditu; egunero hiru milioi dolar irabazten ditu bertatik. Dirudienez, Turkiak kolaboratzen du petrolioa Europara eramaten, eta Irakeko Europar Batasuneko enbaxadoreak esan du Batasuneko zenbait herrialdek Estatu Islamikoari petrolioa erosten diotela. Bestalde, Estatu Islamikoak Irakeko gerran parte hartu zuten Europar Batasuneko herrialdeek utzitako armak ditu.

ERREFUXIATUENTZAKO NAZIO BATUEN AGENTZIA / A. MACCONNELL

Gerraren ondorioz ia lau milioi lagunek egin dute ihes Siriatik.

NATOren interbentzioaren ondorioz Libiak ez du bururik altxa, eta kaos egoera iraunkorrak beste interbentzio bat justifika lezake edozein momentutan

OIM Migrazioen Nazioarteko Erakundearen arabera Estatu Islamikoak Iraken 2014ko ekainean egin zuen lehen ofentsibaren ondorioz hiru milioi lagunek alde egin behar izan zuten. Zenbait aurreikuspenek diote zifra hori hamar milioi pertsonatara iritsiko dela, herrialdearen populazioaren herena. Soilik abuztuan Irakeko gatazkan 1.325 hildako izan dira eta 1.800 zauritu.

Tortura sistematikoa da Iraken Geneva International Centre for Justice (GICJ) erakundeak egindako txostenaren arabera. Praktika hori ez dute soilik indar publikoek erabiltzen, baita atxiloketak eta bahiketak egiten dituzten taldeek ere.

Afganistango balio geoekonomikoa

AEBek Afganistanekin duen erlazio geopolitikoa mantendu nahi du. Estrategikoki eta militarki garrantzi handia duen herrialdea da. Afganistanek bilioi bat dolarreko balioa duten mineralak dauzka. Nahiz eta tropa amerikarrak herrialdetik alde egin, Afganistanen BPGaren %90 kanpoko finantzaziotik dator, gehiena Estatu Batuetatik.

Herrialdearen %20 muturreko pobrezian bizi da eta %40 langabezian dago. Talibanek Afganistanen zati handia kontrolatzen jarraitzen dute eta atxiloketa arbitrarioak jazotzen dira. Amnistia Internazionalak adierazpen askatasunaren aurkako urratzeak salatu ditu, baita bermerik gabeko epaiketetan agindutako heriotza zigorrak ere. ■

Schäublek greziarren aurretik alemanak ere zukutu zituen

25 urteko tartearekin, Europa astindu duten bi gertakizun nagusitan protagonista izan da Wolfgang Schäuble ministro alemana. 1990eko hamarkadan Eki Alemania kapitalismoan murgilarazteko operazioa kudeatu zuen. Uda honetan Greziako herritarrei erreferendum itxaropentsu baten emaitza irentsarazi die. Ez da kasualitatez gertatu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Reuters agentziarentzako Ralph Orlowskek egindako argazkian, Wolfgang Schäuble Alemaniako finantza ministroa. Greziaren hirugarren erreskateak, herritarrek erreferendumean arbuiatu baina Troikaren presioz azkenean Alexis Tsiprasek onartu behar izan duenak, aurreikusten du erakunde berri bat herrialdearen ondasun publikoak pribatizatuz teorian 50.000 milioi euroko bermea osatu behar duena. Europako erabaki ekonomikoetan gizonik boteretsuena den Schaüblek antzeko erakundea abiarazi zuen orain dela 25 urte bi Alemaniak batzeko operazio handiaren erdian. Orduan porrot egin bazuen, zergatik errepikatzen ditu formulak? Bere kultura eta estrategia ordoliberalengatik, diote aditu batzuek. Esplikazio xumeagoa du Dirk Laabsek: "Schäublek kontable gogor eta zorrotzaren itxurak egiten ditu. Baina benetan ez da lehengo akats zaharrak errepikatzen dituen politiko arrunt bat besterik".

SCHÄUBLE GORROTATZEA ERRAZA da Europako herritar askorentzako. Greziarrei beren nahiaren kontra hirugarren memoranduma inposatu dion Europar Batasuneko elitearen ordezkari geratu da historiarako. Bistakoa den arren indar eta pertsona askoren erabakia izan dela, greziarrak pobreziara kondenatu eta europar guztiei murrizketa basatiak ezarri dizkien Troikaren aurpegia da Schäuble, erreferendumaren aurretik negoziaketen beroan Yanis Varoufakis ministro greziarrari aulki gurpildunetik mehatxu egiten ikusi genuen gizona.

Doixtarren eta zehazki Schäubleren jokabide gogor eta erruki gabea ulertzeko, Alemaniatik Europara zabaldu den *ordoliberalismoa* aipatu dute *Le Monde Diplomatique*n François Denord eta Pierre Rimbert soziologoek eta Rachel Knaebel kazetariek: "Ordoliberalismo alemana, burdinazko kaiola Europarentzako".

1930eko hamarkadan sortua, *Freiburgeko Eskola* ere deitu zaio, hiri hartatik zabaldu zelako. Schäublek sarritan oroitarazten du hiri hartan jaioa dela. Latinezko '*Ordo*' (ordena) izena eman zioten beren aldizkariari liberalismoaren barruko korronte hau sortu zuten ekonomialari eta pentsalariek. Alemanez '*ordnung*' hitza darabilte 'orden', 'araudi' edo 'diziplina' esateko. Bitxikeria moduan, *Ordnung* deitzen diote beren araudiari Amish eta Menonita kontserbadoreek, idatzi gabe ere kide guztiek derrigor ezagutu eta errespetatu behar duten arau sailari. Hortik doa kontua, nola bermatu ekonomia kapitalista liberalaren ordena eta diziplina.

"Anglosaxoiek –diote Denord, Rimbert eta Knaebelek– *laissez-faire* aldarrikatzen duten bezala, ordoliberalek ere arbuiatzen dute Estatuak merkatuan esku hartzea. Baina, hauek uste dute konkurrentzia librea ez dela berez garatzen. Ondorioz, Estatuak antolatu egin behar konkurrentzia: merkatuaren eremu juridiko, tekniko, sozial, moral eta kulturazkoa eraiki behar ditu. Eta arauak betearazi. Horra zer den 'ordopolitika' (*Ordnungspolitik*)".

Grezian uztailean egindako erreferendumaz aritzerakoan, beraz, joko politikoaren bi ikuspegi zeuden aurrez aurre. "Buruzagi greziarrek uste izan dute herritarren botoek nagusitasuna daukatela kontabilitate ekonomikoaren gainetik eta hautatutako agintariek badaukatela ahalmena arauak aldatzeko. Aldiz, [alemanen iritziz] gobernuaren jardunak egon behar du ordena zorrotz zaintzearen mende; politikariek nahi duten moduan jokatu dezakete baldin eta ez badira irteten markotik, eta marko hau *de facto* eztabaida demokratikotik kanpo dago. Finantzen ministro aleman Wolfgang Schäublegan mamitzen da pentsakera hau. 'Beretzako arauek jainkozko izakera daukate' idatzi du Yanis Varoufakisek".

Hainbesteraino bilakatu da ordoliberalismoa establishmentaren ortodoxia, ezen eta *Der Spiegel* astekari liberalak uztailaren 6an publikatu baitzuen: "Inork nahi baldin bazuen frogatu zein arriskutsuak diren erreferendumak demokrazia modernoentzako, horra froga". Ohartzerako, ordoliberalismoa [ikusi Baleren Bakaikoaren azalpena ARGIA honen 18. orrialdean] sagaraturik geneukan Europa osoan: lehenik merkatu kapitalista, horren baitan demokrazia.

Treuhand: pribatizazioen porrota

Baina Freiburgeko eskolako zaindari baino gehiago da Wolfgang Schäuble, Dirk Laabs kazetariak oroitarazi berri duenez, ingelesez *The Guardian*en, gaztelaniaz *Sin Permiso*n: "Zergatik da hain gogorra Alemania Greziarekin? Mende laurdenez atzera eginda".

Dirk Laabsek plazaratuta dauka liburu bat Eki Alemania Mendebaldekoan integratzeko egindako bideaz: "*The German Gold Rush: The True History of the Treuhan*" (Alema-

nian denak urre bila ero moduan: Treuhan erakundearen benetako historia". Greziari bortxaz onartarazi zaion itunean aipatzen denez ondasun publikoak salduz 50.000 milioi euro lortu eta zorrak kitatzeko erabili beharra, Laabsek kontatu du mekanika bera erabili zuela Schäublek duela 25 urte Eki Alemaniako ondasunak likidatzeko.

1990eko udan bera zen, Schäuble, Alemania bateratzeko batzordearen buruetakoa, Helmut Kohl kantzilerraren esku eskuina. Eki Alemaniako egoera, dio Laabsek, ez zen Grezian Syrizak irabazitakoan zegoenaren hain ezberdina. Herritarrek historiako lehenbiziko hauteskunde libreak burutuak zituzten, Berlingo harresia erori berria, eta beren ordezkarietako batzuek amesten zuten Ekialdeko sistema sozialistaren eta mendebaldeko merkatu ekonomiaren arteko "hirugarren bidean", baina ezin zuten asmatu fakturak nola pagatu.

"Aldiz, mendebaldeko alemanek, negoziaketa mahaiaren beste aldean, indarra zeukaten, dirua eta plan bat: Eki Alemaniako estatuak zeukan guztia Mendebaldeak bereganatuko zuen eta berehala salduko zien inbertsiogile pribatuei. Beste hitzetan esanda: Schäublek eta bere ekipoak bermeak nahi zituzten".

Treuhand izeneko erakundea hasieran ekialdeko disidente batzuk asmatu zuten, sistema sozialistako konpainiak modu ordenatuan bertako enpresa pribatu bihurtu zitezen, utzi gabe burokrata komunista ustelei Mendebaldeko Alemaniari saltzen.

Schäubleri gustatu zitzaion ideia, operazioaren gidaritza emango ziolako halako independentzia itxura bat zeukan erakunde berri bati. Bera jarri zen Treuhanden buru.

Laabsen haritik tiraka, Thomas Morel historiagileak laburbildu du Schäublek Alemaniako langileei ekarritako kalamitatea "*Ce que la réunification allemande nous enseigne sur la crise grecque actuelle*" artikuluan.

Treuhand lanean hasirik, ez parlamentuari eta ez herritarrei konturik eman beharrik gabe, ustelkeria kasuak nagusitu ziren. Mendebaldeko konpainiak hasi ziren opilaren zatiak berenganatzeko borrokan. "Supermerkatuak, hotelak, etxebizitzak, bankuak... herrialde oso bat saldu zen ogi koskor baten truke".

Baina ugazaba berriek gehiago nahi zuten. Eta xantaia egin zioten estatuari, enpresak ixteko, milaka langile kaleratzeko, inbertsioetarako diru-laguntzak eskuratzeko... beraiek xentimorik arriskatu gabe.

Alemania osoko langileei ekarri zien 20 urteko atzerakada, mendebaldekoei ere bai. Soldaten 'moderazioa', enpresak ekialdera deslokalizatzeko mehatxuak, ongizate estatuaren sutsitzea... Eta gainera Treuhandek porrota jo zuen 1995ean, Alemania batuari sekulako zorrak utziaz: hasieran 100.000 milioi euro aipatu, benetan pribatizazioekin 34.000 milioi lortu eta azkenerako 105.000 milioi galdu. Alemaniako herritar asko oroitzen ez diren arren, zor haiek ere herritarrek ordaindu zituzten. ■

Xabier Letona

DANI BLANCO

Autokritika, armak eta aitzakiak

BILBOKO alkateen bilkuran ostera ikusi da iraganaren irakurketa dela edozein bake prozesuk duen korapilo trinkoenetakoa. Urkullu lehendakariaren gidaritzapean han izan ziren EAJ, EH Bildu eta PSE-EEko 114 alkate. Baziren gabezia ugari, baina partaidetzari dagokionez, garrantzitsuena PPren presentzia eza izan zen, alkaterik ia izan ez arren, gatazka honetako aktore garrantzitsuena delako gaur egun, batez ere egiazko bake prozesu bat aurrera eramateko oztoporik sendoena bilakatu delako.

Urriaren 20an lau urte beteko dira ETAk jarduera armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Harrez gero, PPk etengabe oztopatu du mende erdiko gatazkaren irteera ordenatua. Gatazkaren humanizatzean zero urrats egiteaz gain, errepresioaren logikan gotortu da.

Beste muturrean ETA dago, ataka honetatik atera ezinean, jarduera armatua hainbat aukeratan utzi ez izanaren gatibu. Ondorio asko eta larriak izan zituzten erabaki haiek, baina gaur egun presoak dira Lizarra-Garazi edo Loiolako trenak galtzearen ondorio lazgarrienak. 2011ko urrian nekez pentsatuko zuen ezker abertzaleak lau urteren ondoren esparru hori berdin edo okerrago egongo zenik. Edo 2013ko Aste Santuan, ETAk nazioarteko egiaztatzaileei arma sorta txikiaren entrega egin zienean, nekez irudika zitekeen bi urtera arma guztiak oraindik entregatu edo desegin gabe –non da desberdintasuna jada?– leudekeenik.

Urteetan Estatuaren negoziazio borondate eza jarri zuen mahaigainean ETAk borroka armatuarekin jarraitzeko. Orain zailtasun teknikoak dira mahai gainean armen desegitea behar bezala egiteko; eta ez zaio arrazoirik faltako, poliziak atxilotzeko prest edo armen entrega errazten izatea zeharo desberdina baita hori bideratu behar duen etakidearentzat. Eta hala, bake prozesuan aurrera ez egiteko aitzakia bihurtu dira armak.

Alde bakarreko bideak korapilo hori askatzea ETAren esku uzten du funtsean. Nazioarteko egiaztatzaileen bidetik edo Jaurlaritzarenetik, baina lehenbailehen bideratu beharrekoa da armena. Besterik ezean, aitzakiak kentzea baita ETAk egin dezakeen bakarra.

ETA desegitearena da bake prozesuan urratsak ez emateko erabiltzen den beste argudioa, bai PPren eta PSOEren aldetik, eta baita EAJrenetik ere. Egiazko bake prozesuaren ikuspegitik, ETA desegitea horren ondorio izatea litzateke onuragarriena halako zuloan berriz ez jausteko. Horrez gain, ETAk berak eman beharko lituzke egindakoaren azalpenak. Eta hau ez da ezker abertzalea dagokion erantzukizunetik libratzeko, baizik eta bakoitzak bereak modu egokiagoan bizkarrera ditzan.

Nazioarteko egiaztatzaileen bidetik edo Jaurlaritzarenetik, baina lehenbailehen bideratu beharrekoa da armena

Garai bakoitzean era desberdinean, baina mende erdiko ibilbidean, ETAk ezker abertzalean –eta oro har abertzaletasunean– topatu du behar zuen babes herritar eta ideologikoa, baina abertzaletasuna ez da ETA izan eta ezker abertzalea ez da ETA izan. Horrexegatik izango luke zentzua ETAk bizikidetza bake prozesu batean nolabaiteko parte hartzea izatea, ez ezker abertzalearen ordezkari eta zaintzaile gisa, aurreko prozesuetan bezala, dagokion erantzukizunari hobeto erantzuteko baizik. Ezin zaio eskatu Sorturi, are gutxiago EH Bilduri, ETAk egindakoaren erantzukizun osoa.

MEMORIA nekez jorratu ahalko da modu txukunean adostasun maila baten gainean egiten ez bada. Horretarako iraganaren irakurketa partekatua behar da eta ezker abertzalea ezinbestekoa da zeregin horretan. Ezker abertzaleari exigitzen zaion autokritika baldin bada esan dezala 50 urteko borroka armatuak ez duela zentzurik izan edota iragan hori guztiz arbuiatzen duela, nekez egingo da aurrera. Hasi egin behar da egiazko prozesua, baldintzetan baino eskaera eta eztabaida serioetan oinarritua. Eta hor ikusiko da elkarrizketak noraino iristen diren.

Eta hala esparruz esparru, puntu garrantzitsuenera iristeko: etorkizunean ez dela bortizkeriarik erabiliko, ez helburu politikoak lortzeko, ezta euskal herritarren edozelako erabaki zapuzteko ere.

Bakearen ikuspegitik ez da ez zilegi ez eraginkorra ezker abertzalearen autokritika aitzakiatzat baliatzea bake prozesua sendotasunez ez bideratzeko. Presoen esparruan eskaera hori makurragoa da: beren gatibu izaera baliatuz damua, salaketa edo pentsatzen ez dutena esatera behartzea, etikoa ez izateaz gain, ez da batere onuragarria etorkizuneko bizikidetzari begira. ■

ASTE HONETAKO

zozketak

Argiako harpidedunentzat



[F]arina Jatetxea

2 pertsonentzako otordu bat

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea)
Vitoria-Gasteiz ARABA
www.farinarestaurante.com

1

Inguru Abentura

1. mailako espeleologia txangoa

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA
www.inguruabentura.com

2

Artium

Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

5 lagunentzako bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA
www.artium.org

3

Ekain berri

Ekainberri

3 lagunentzako bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2472. Argia)

GARRAXI
Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

EUREKA
Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
Imanol Irigoien Aranberri (Oiartzun)

STM
Jose Antonio Azpiros Noain (Zuia)
Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
Sabin Arenaza Alvarez (Bilbo)

22M2
Ama Lur Bedialauneta ibaibarriaga (Ondarroa)
Antton Idiakez Korta (Ezkio-Itsaso)
Aintzane Linaza Etxebarria (Gasteiz)
Alazne Garmendia Txurio (Oiartzun)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (Arrasate)

ILLIMANI
Roberto Izagirre Barruetabeña (Bergara)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO
Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

gunea argia

PASOLINI ROMA

Marrinch

San Telmo Museoa | **Erakusketa** | **2015 6.20/10.4** | **#pasoliniroma**

Antolatzaileak:

San Telmo Museoa

Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián

donostiakultura.com

DSS2016.EU

Ekoizleak:

CCCB Centre de Cultura Contemporània de Barcelona

La Cinémathèque Française

azienda speciale PALAEXPO

Berliner Festspiele Martin-Gropius-Bau

palazzoesposizioni

Erakunde Babesleak:

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Gipuzkoako Foru Aldundia

Patrono Pribatuak:

eitb

El Diario Vasco

Altuna y Uria S.A. Construcciones

kutxa

Enpresa Ongileak

Radio SER

naiz:

berria

GARA

Europar Batasunaren Kultura programaren laguntzarekin / Con el apoyo del programa Cultura de la Unión Europea

Cultura

Pier Paolo Pasolini Teorema filmaren platoan / 1968 ©Angelo Novi / Centro Studi – Archivio P.P. Pasolini / Cineteca di Bologna